# SAGASTIBERRI

# Urruzunotarrak gehituz

2017

## irakaskuntza ertainetako

# Urruzunotarrak gehituz

## literatura-ekimena 2017

LAN SARITUEN BILDUMA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac

| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2017ko uztaila |
| Ale-kopurua: | 1.650 |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Hezkuntza Saila |
| Internet: | www.euskadi.eus |
| Prestatzaileak | Iñigo Barruso, Aitor Esteban<br>eta Iñaki Iturain |
| Azala: | Txapo Creativos S.L. |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Fotokonposizioa eta inprimategia: | GZ PRINTEK, S.A.L. |
| ISBN: | 978-84-457-3416-2 |
| Lege-gordailua: | VI 344-2017 |

# AURKIBIDEA

**Hitzaurrea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 7

**Zubia literatura denean** *Gari Berasaluze*. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 11

**Poesia: A maila**. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 17

Soka gainean . . . . . . . . . . . . . . . . *Olatz Martiartu Aiestaran*. . . . . 19
Zuretzako hitzak. . . . . . . . . . . . . . *Alaitz Estonba Loinaz* . . . . . . . . 25
Gorroto nuen poesia . . . . . . . . . . . *Maria Oses Saiz*. . . . . . . . . . . . . 31
Bizitza. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . *Naia Gerekiz Uriarte*. . . . . . . . . 37
Nerabezaroa . . . . . . . . . . . . . . . . . *Lorea López Ederra*. . . . . . . . . . 43

**Poesia: B maila**. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 47

Otsaila. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . *Julene Iturbe Epelde* . . . . . . . . . 51
Trantz(sex)ea . . . . . . . . . . . . . . . . *Aroa Arrizubieta Barredo* . . . . . 57
Aske . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . *Maddi Aiestaran Iparragirre*. . . 63
Hegaka . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . *Haizea Urkixo Gorostiaga* . . . . 69
Zuri esker . . . . . . . . . . . . . . . . . . . *Laiene Aranburu Gorrotxategi* 75

**Prosa: A maila** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 81

Lubiankan. . . . . . . . . . . . . . . . . . . *Peru Amorrortu Barrenetxea* . . 83
Gerrako hizkuntzan . . . . . . . . . . . *Naia Luzarraga Ellis* . . . . . . . . . 99
Anbotoko dama . . . . . . . . . . . . . . *Leire Aginaga Etxebarria* . . . . . 111
Homo hominis lupus . . . . . . . . . . *Ainhoa Gojenola Urrutia* . . . . . 121
(Ez)ezagunak . . . . . . . . . . . . . . . . *Maria Cascon Urizar* . . . . . . . . 129

**Prosa: B maila** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 137

Maitasuna, sua . . . . . . . . . . . . . . . *Aratz Fernández De Pinedo* . . . 139
Hiru aurpegiko txanpona . . . . . . . *Lore Txakartegi Alvarez* . . . . . . 151
Bakardadea. . . . . . . . . . . . . . . . . . *Maitane Lekuona* . . . . . . . . . . . . 159
Altxorrik preziatuena . . . . . . . . . . *Iratxe Garmendia Eguskiza* . . . 167
Beste egun bat . . . . . . . . . . . . . . . *Lierni Gregorio Zabala* . . . . . . . 183

**Urruzunotarrak 1986-2017** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 191

# HITZAURREA

Urruzuno literatura-lehiaketa indarrean izan da hogeita hamabost urtez. Azkeneko urteotan, "Urruzunotarrak gehituz" izeneko ekimena 1986 hartan abiatu zen lehiaketaren ondorengoa da; eta aurtengo edizioan berezko zuzkidura izan du sailaren aurrekontuan.

Liburu honen azken orrietan duzu, irakurle, urte hauetan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrenda. Bostehundik gora dira dagoeneko horrelako "titulua" lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetakoa lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen zaizkigu garai bateko kimu berri haiek gaurko kazetaritzan, gaurko literatura-izenetan. Kimu loratuak dira haiek, irakurle; kimu berriak, liburuan barrena dastatuko dituzunak.

Urtero bezala, berariaz goraipatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren atzean dagoen irakasle-trebatzailea. Irakasle fin horren lan isila dago gaztetxo hauetako bakoitzaren atzean. Berezko iaiotasuna ez da gehienetan nahikoa izaten idazle berriak sortzeko. Landu, trebatu eta aberastu egin behar izaten da berezko hori.

Eta zuk, Urruzunoko parte-hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu ikusten zure barnean daramazuna. Edo agian ez duzu oraingoan asmatu zure hori kanporatzen. Edo agian trebetasun apur baten kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai, esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko. Topikoa litzateke orain esatea "saiatu berriro", eta topiko erdiarekin nahikoa da: "saiatu" besterik ez.

Baina goazen aurtengo datuetara. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Literaturaz jantziak diren pertsona hauen kolaborazioa izan dugu aurtengo epaimahaian:

Leire Bilbao
Jasone Osoro
Peru Iparragire
Goiatz Labandibar
Gari Berasaluze

Parte-hartzeari dagokionez, 2017. urte honetan 103 lan jaso dira: A mailan 54 prosan eta 13 poesian; B mailan, berriz, 28 hitz lauz eta 8 olerkian; bestalde, parte-hartzaileetako 75 neskak dira eta 25 mutilak.

Dakizuen bezala, ekimenak dituen 20 bikaintasun-aipamenak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailetan: bosna atal bakoitzean.

Aipamendunek irailean egingo den bost eguneko literatura-egonaldian hartuko dute parte.

*Sagastiberri* sailean epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratzen dira lanak eta liburua eskola guztietara eta parte-hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2017a bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu aipamendunoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaian kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Gari Berasaluzeri.

Liburuko idazleak poztuko dira, irakurle zaren horrek lan hauek maitekiro eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburu hau irakur- eta idatz-zaletasuna zure ikasleen artean ugaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere, irakur ezazu liburu hau gazte batzuen ilusioaren eta sormenaren ispilutzat hartuz. Euskaltzale, irakur ezazu itxaropenez euskararen fruitu apal eta duin hau.

IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU, deiadarka datorkizu liburu hau.

**Euskara Zerbitzua**

# Zubia literatura denean

Gari Berasaluze

Hamalau urte nituen Xabier Montoiaren lehen poema liburua irakurri nuenean, institutuko lehen urtean. Hizkuntza bateko zein besteko literatura gorrotatzen irakatsi ziguten urte haietan, orrialde bat ulertzeko zazpi aldiz irakurri behar ziren testuekin, eta hiperbole, metafora, elipsi, epiteto, anafora eta antzekoen bila liburuei egin behar genizkien autopsia sakonekin. Gazteak literaturatik eta liburu ederretatik urruntzeko estrategiarik eraginkorrenak esperimentatu zituzten gurekin, eta asmatu ere egin zuten oro har.

Institutuko mugetatik kanpo, ordea, bazen beste bizitzarik eta libururik ere. Baziren irakasleek inoiz gomendatzen ez zizkiguten egileak, liburuak, aldizkariak eta fanzineak, eta haietako batean irakurri nuen batzuentzat Jesukristo gurutzera lapurren artean igo zenean hasten dela historia; beste batzuentzat, aldiz, Leninek txapela kenduz botere osoa sobieterako aldarrikatu zuenean, Finlandiako geltokian; Xabier Montoiarentzat, azkenik, David Bowiek ilea moztu zuen egunean.

Nik, berriz, urte hartan bertan deskubritu nuen idaztea ihesbide erakargarria zaion gazte batentzat, Urruzuno lehiaketa irabaztean hasten dela historia. Liburu hura irakurri eta aste apur batzuetara heldu zitzaidan lehiaketaren deialdia, eta koadernoetan idatzitako poemak hartu, osatu eta berridatzi ondoren, lagun baten sotoan emandako arratsaldeaz akorda-

tzen naiz. Izan ere, idazmakina zaharrekin idazten genuen orduan, eta lagun hark idazmakina modernoagoa zuen, letra tipo erakargarriagoarekin. Idazmakina hartan pasatu genituen garbira poemak, eta sasoi hartan ikusitako *Call Freedom* filmak eraginda, Steve Biko goitizenarekin bidali nituen, apartheidaren aurkako borrokan eraildako gaztearen omenez.

Orduan ez zegoen sakelako telefonorik ere, eta amaren etxean jo zuen telefonoak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko langileren batek saria irabazi nuela esateko deitu zuenean: zorionak, gainerako irabazleekin hamar eguneko bidaia Jugoslavian barrena, 30.000 pezeta, eta lan irabazleak liburuan argitaratzea. Poema batzuk idazteagatik, mauka sinestezina zen hura.

Irailean, gerra lehertu aurretik ezagutu genituen Sarajevo, Mostar, Dubrovnik, Split, Zagreb eta gainerakoak eta, batez ere, idaztea eta irakurtzea gustukoa zuten beste gazte asko ere ezagutu ahal izan nituen. Hurrengo urtean heldu zen hurrengo saria, urruzunotar berriekin, liburu berriarekin, hiri berriekin, eta hurrengoan beste bat, eta hurrengoan laugarrena. Whatsappik gabeko urte haietan, postalak eta gutunak urte osoan heltzen ziren postontzira, eta laster ohartu nintzen Monako, Paris, Amsterdam, Brugge, Brusela, Erroma, Venezia eta hiri haiek guztiak baino garrantzitsuagoak zirela niretzat Ainhoa, Leire, Patxi, Harkaitz, Urtzi, Larraitz, Amaia, Unai, Josu, Xabier, Aritz eta gainerako lagunak. Haietako askorekin sortutako harremana dozenaka eta dozenaka gutunetan geratu zen idatzita, eta beste hainbatekin estututako harremanak, berriz, literaturarekin lotutako ekimen eta proiektu berriak ere ekarri zituen. Urruzuno lehiaketak lotutako bideei esker.

Izan ere, sariek saridunak eta zaurituak uzten dituzten arren, hizkuntza bakoitzak bere literatura ezagutarazteko eta

sendotzeko mugarriak diren sariak izaten ditu. Erakunde publikoek banatutakoak izango dituzte gustukoak batzuek. Irakurle talde edo kluben iritzien arabera banatzen direnak izango dira beste batzuentzat ederragoak. Baina adina kontuan hartuz gero, gazteentzako euskarazko literatur sarien artean, ez du itzalik Urruzuno lehiaketak. Behin, Urruzuno harrobi handia izan dela eta gure nerabezaroko gertaera garrantzitsu bezala oroitzen dugula idatzi ostean, “Urruzuno sariketa garrantzitsuagoa izan zen niretzat Euskadi Saria baino” nabarmendu zuen Harkaitz Canok.

Canoren hitzak ederki ulertzen ditugu noizbait urruzunotarrekin bizitza eta literaturarekiko pasioa partekatu dugunok. Batean eta bestean aurrera egiteko mapa pertsonalizatua bihurtu baitzitzaizkigun harreman haiek, autobusetan eta hoteletan entzundako abestiak eta ikusitako liburuak. Urruzunotar izatea, azken batean, literatura gustukoa duten gazteen topalekuan bat gehiago izatea baita. Eta horretan bigarren mailakoa da bidaia, hotela, autobusa, baserria edo tailerra den bitartekoa. Horregatik ez du izan etenik lehiaketak, eta urtez urte gehituz doaz urruzunotarrak.

Gustuko idazleak, gustuko liburuak eta gustuko pasioak partekatuko dituzten gazteak elkartzea da kontua. Loturak areago estutzeko moduak bilatu daitezke, baina selfien, bideoen eta argazkien garaian, elkarren berri izateko zubia literatura den ekimen bat antolatzea, nabarmentzekoa da. Aurten ere, bada, eskerrik asko Urruzuno lehiaketaren antolatzaileei, eta zorionak irabazle guztiei. Gozatu esku artean dituzuen lan hauekin, eta batez ere zuen artean sortu daitekeen konplizitatearekin.

Gari Berasaluze
2017ko maiatza

# POESIA A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Soka gainean

Olatz Martiartu Aiestaran
Lekeitio BHI
Lekeitio

Nor gara?
Non gaudE?
Ustela da existentziaren zentzua?
Beste hamaR
Erantzun absurdo.

Behin aitortu zenidan indar guztiekin maite ninduzula
gorriak ene musU.
Rimela irristaka malkoen bidezidorrean supituki,
zure hizkera zientifikoaz itsU
Amodioaz fisikan indar guztien batura 0 dela ahaztu.

Utzi ditut larru gorritan soineko zuridun
hamaika bitxilore edeR.
Klaru esan didate hamaika azken petaloek
ezetzA.
Txoro ezjakinaren inkontzientea ere
ez dabil, baina, ausaZ
Eta izebergaren urpeko zatiak flota dezan ez
da aski pazientzia laR.
Amore emateko bidea (dantzut) ez ezazu har.

Nor da, baina, zoriontasunaren
lekukO?
Afrikako ogi gogor
etorkizunaren begi umeL
Amerikako tra(u)n(m)pak Sirian
bonben bolo-boloaK.
Ostia! Nor da, orduan, zoriontasunaren lekuko?

Umeek inozentzia eta besteok
zorigaitza arnaS
Trenetik jaitsita aske
nintzatekE
Arnasterik gabe, aingura barik ume
inozenteak leZ.

Jakina da bi lagunetako bat hiltzean bizia
dela hilA
Iraungo duten azken berbak:

<<Domino efektuak etzan nau, ama
erruduntasunik ez pairatU
Zenbat eskertzeko egun eta gau, aita zerrenda
ezin da amaitU.

Ekilibrista ere sokan pozik
ezerezak utzi du negarreZ

Dena da ezereza ezereza ez
den oro da denA
Sarkasmoa, antitesia, kontraesana ulertU
Inor ez da ezereza eta
denok gara ezereZ
Ikuspegia aldatzeko ere ekilibristaren soka fina.

"MaD"
Izenpetu naute zoroenek: infinitu zozO.
Ardi beltza naiz artalde zurian, zuria beltzean.>>

Zenbat harri altxa karramarrotan lez
erantzun eskE
Ustekabean beti agertzen zara zeu, baina.

Zingira bete negar beti
silueta berA
*Rouge* taberna eszenatoki (*gorria*, kasualitatez) bera
eta zu, zu eta berA

Txiki-txiki egiten nauen dantza erotikoa
zer esanik ez muX…
Onartezina zaio ene gogamenari.
Aitaren etxea ArestirentzaT,
Xabier Letek Urepeleko artzaina bezala
Laboak bazterrak laketagO.
Ni txotxongilo maitemindua, ez maitatua
gulaG
Itxi hits izoztuan gatibu.
Ez dut nahiko, ba, hiL?
Ordua iritsi zait.

Hiltzearen lagunarteko teoria berriz jaio
zait gogorA
Ulertu dut bizirik jarraitzeko beharra.

Ni neu hiltzea
da kontua.
Zeu akabatzea da
erremedio bakarra.
Egunerokotasuneko zulo
beltzean, gorrian (*Rouge*)
zoriontsu den bakar
bihurtuko zara.
Maitasun frogatzat ez
du ulertuko zozo
artalde zale orok;
ezta zeuk
ere, ziur.
Hala ere,
mai te
zai tut.

Poesia hori esku artean izanda
sokan behera irakurtzeak urkamendiak
ere ez zaitu kikildu
maiuskulekin esaldia osatu,
baina lokartu.

Nabari duzu heriotzaren kerua.
Nabari eta merezi.

# Zuretzako hitzak

Alaitz Estonba Loinaz
J.M. Iparragirre BHI
Urretxu

## ZURETZAKO HITZAK

Ez dakit benetakoa den
lehen oroitzapena.
Ez dakit noiz eman zenidan
lehen muxua.
Ez dakit noiz kontatu zenidan
lehen istorioa.
Ez dakit noiz hasi nintzen zu maitatzen,
baina badakit noiz hasi nintzen zure falta sumatzen.

Lehenengo argazkia dut eskuetan, lehenengo irribarrea zure besoetan,
zure begirada eztia,
zure babes eta indarra.
Zure kontuek betetzen dute argazkia,
urte erdiko biloba beso artean duzula.

Bigarren argazkian amonak nauka besoetan,
amonak babesten nau,
zuk otsoarena egiten duzun bitartean.
Barre egiten dut,
begiak dir-dir,
munduko bihotzik goxoena
otsoaren bihotzean sartu nahian ikustean.

Eta zein politak
bazkal ondorenetako solasak
zure ondoan entzundako
bertso eta kantak,
danbolinaren txinparta artean
botatako barreak.

Bitxia da gauza txikienak behar izatea.
Zure betaurrekoak armairuan gordeak.
Zure zotza belarri atzean.
Zure pipa gelako lehen kaxoian.
Zure bastoia etxeko sarreran.

Zure esaera zaharrak,
lehen gehiegi errepikatzen zenituenak
eta orain guk errepikatu behar ditugunak,
zure omenez,
gure esker onez,
betiko legez.

Oraindik imajinatzen zaitut
parrillaren aurrean,
biloboi sua egiten irakatsi nahian.

Amona eta bion liskarrak,
barrez bukatzen zirenak,
huskeria baino maitasuna boteretsuagoa zelako.

Eta nola ahaztu Olentzero?
Hainbesteko maitasunez egina,
zure pipa ahoan
besaulkian ezarria.
Eta haiek barreak,

Olentzerok kasurik egin ez zizula esatean.
Haiek barreak,
aitona zoratzen hasia zela pentsatzean.

Azkenik, zure begirada ederra.
Tamalez jaso ez ditudan begi orlegiak,
distiraz beteak,
hainbeste esaten zutenak.
Azken begirada ohean etzanda.
Azken begirada joan aurretik.
Azken begirada guri eskainia.
Azken begirada: ahula baina ausarta.

Joan zinela jakitean egin nuen hasperena,
sufrimendua amaitu zitzaizula jakitean.
Handik bi minutura jausi zitzaidan malkoa,
gehiago ikusiko ez zintudala jakitean.
Bihotzean ireki zitzaidan zuloa,
zure begirada faltan botatzen hastean.

Hitz xume hauek,
zuk irakatsitakoaren truk.
Hitz xume hauek,
muxu batekin batera.
Hitz xume hauek,
nahiz eta nahikoa ez izan,
zuk emandakoak dira:
zuk eman baitzenidan
ume moko bat nintzelarik
hitz jario hau;
zuk eman baitzenidan
hitzekiko maitasuna;
zuk eman baitzenidan
aske bizitzeko era.

# Gorroto nuen poesia

Maria Oses Saiz
Arrasate BHI
Arrasate

## - I -

Hiriko argien artean galdurik,
zu eta ni,
farolen itzal batetik bestera
ezkutaketan.
Trafikoaren zaratak
isildu ditu
gure barre urduriak,
euriarengandik ihesi
igo ditugu eskailerak,
leihoan eseri gara,
bata besteari begira.
Nola da posible
gizartearen joan-etorri frenetikotik
hain gertu egon
eta hain absente egotea,
munduaren erreginak bagina nola.
Eta ez dakit nola den posible,
baina momentu batez
badirudi
gure eskuekin soil-soilik
euriaren melodia zuzentzeko
gai garela,

gure agindupean
farolen argiek
ortzadarra margotzeko
gai garela,
eta gure ezpainak lotuz
momentu batez,
segundo batez,
hiria gerarazteko
gai garela.
Gaur bai,
handiak gara.

- II -

Hamar ginen elizara beti joaten ginenak;
igandero,
igandero,
hamar urtez.
Lehenengo lerroan, hiru;
bigarrenean, bi;
hirugarrenean, lau,
eta azkenengoan, ni.
Duela hiru igande, bederatzi bihurtu ginen;
hirugarren lerroko Joxe
eserleku gainetik azpira pasa zen.
Duela bi, zortzi ginen ja;
bigarren lerroko Joxefinak
ezin izan zuen min bizi harekin.
Aurreko igandean jakin nuen
bi gutxiago ginela ordurako;
lehenengo lerroko Juan eta Pedrori
birikak zigarrokin itzali gabeek
lehertu zizkieten.
Gaur igandea da.

Sei gara orain elizara beti joaten garenak;
igandero,
igandero.
Batek daki;
agian hurrengo igandean
bost izango gara,
edo, agian,
bost izango dira.

- III -

Inoiz gehien bete nauen hutsunea zara;
zure absentziak inbaditu nau guztiz.
Inoiz altuen entzun dudan isiltasuna zara;
inguruko zarata guztia mututu duzu.
Inoiz gehien ikustarazi didan iluntasuna zara;
belztasuna argitu duzu mementuro.
Inoiz gehien lagundu didan bakardadea zara;
orain ez dut zure falta ez den inor.

- IV -

Zuri deitzeari utzi nion aspaldi;
amore eman nuen,
errenditu egin nintzen
ebidentziaren aurrean.
Gaur, telefonoa hartu,
eta zure zenbakia markatu dut,
hainbestetan bezala.
Gaur, ordea,
deitu egin dizut,
botoitxo berdeari sakatu diot.
Ez dakit zergatik,
ez dakit nola,

nik ez nuen nahi.
“Bai? Nor da?”
entzun dut zure ahots eztia.
“Ez, ez naiz ni.”
erantzun dizut.

# Bizitza

Naia Gerekiz Uriarte
Gernika BHI
Gernika-Lumo

**AMA**

Gaurkoan ere ez dakit nola eskertu
inoiz baztertu ez izana.
Loreak zurekin zorretan daude
eman baitiezu usain eta kolore.

Krabelin zuria
tulipa arrosa
errugabea,
ona eta samurra.

Etxeko ortzadarra,
eztabaiden bakea.
Zurekin eraman al duzu
neguko elurraren zuria?

Hodeiak triste daude
beltz, negarrez.
Nork arinduko du ba
amak utzitako mina?

Enarek ez dute abesten,
loreek ez dute usaintzen.
Haizeak ez nau laztantzen,
ezta suak berotzen.

Gaueko izarrak itzali dira
bakardadearen seinale.
Eguzki izpiek itsutzen naute
minaren seinale.

Nork besarkatuko nau hotz naizenean?
Nork laztanduko nau triste nagoenean?
Zeinek babestuko nau beldur naizenean?
Zeinek zuzenduko nau oker nagoenean?

Agur malkoak lehortzen zizkidanari,
agur aholkulari onenari.
Agur gaueroko muxu goxoei,
agur amaren berotasunari.

## GUDA

Zenbat lagunen gorpu
zenbat maitale ahaztu,
zenbat harreman galdu
eta zenbat famili suntsitu.

Udazkeneko hostoei bezala,
ezagunei agur egin.
Neguko hotzari bezala,
tristurari ere ongi etorri.

Inoiz konturatuko al da,
bakea ez dena borrokaren emaitza?
Ulertuko al du munduak,
malko guztien erruduna dena?

Etengabeko auhena beltza,
etxekoen zigorra.
Nork kontrolatzen du ba,
nire sufrimendua?

Etxekoen auhena beltzak,
negartien begi gorriak.
Errugabeak errudun bihurtzea,
gudaren ondorio bakarra.

Ingurukoen malkoetan itotzen naiz,
sufrimenduak inguratu nau.
Errudunak errudun,
errugabe zigortuak.

Familietan amorrua sortzea, zuen helburua.
Bihotzetan sua piztea.
Etxekoak eskergabe?
Zuek nazkagarri.

**ZU ZEU, NI NEU**

Neska izatea zaila da antza,
mutila izatea konplikatua.
Modu bakarrean ebatzi daiteke buruketa,
zu zeu izatea da errazena.

Nortasuna ezkutatzea,
kritikak saihesteko modu erraza.
Etxetik ez irtetea,
begirada txarrak ez jasateko modua.

Besteen epaiketen beldur,
ondokoaren onarpenaren zain.
Zeinek onartu behar nau,
eta zertarako?

Ni ez naiz hura
ezta hura ni.
Ez dut lurrera begiratu behar,
ni neu izango naiz oraingoan.

# Nerabezaroa

Lorea López Ederra
San Tomas Lizeoa
Donostia

# KRISALIDA

Jaio zen beldar hura, egun argitsu batean. Dena zoriona zen, dena polita zen.

Pixkanaka hazi zen, loretxo baten antzera. Eguzki izpien azpian, itzaletan, loreen azpian.

Egunero gauzak ikasiz, mundua ezagutzen, bizitza ezagutzen, bizitzen ikasten.

Gure beldar goxoa, zen zoriontsu.

Benetako mundua, ezagutzen ez zuelako.

Loreen itzalen azpian, gustura bizi zen.

Gure beldar gizajoa, gure beldar goxoa.

Baina heltzeko garaia, egiak ezagutzeko, mundua ezagutzeko, iritsi zen momentua.

Ordua iritsi zen, benetako ordua, heltzeko ordua, begiak irekitzekoa.

Bihurtu zen krisalida. Heltzeko gogoa zuen, irakatsitako munduan, libre hegan egiteko.

Azkenean bihurtu zen, tximeleta bihurtu zen, hegan egiteko momentua, bizitzekoa.

Baina lurraren kontra, lurraren kontra jo zuen. Lurrera, zulora. Kolpea. Hegan egitea zaila da, oso.

Ikasitako mundua, imajinatutako mundua, pentsatutako mundua, horrelakoa ez da.

**Ez da horrelakoa**, ez da…

# ITSUTASUNA

Marea jaisten denean, hondarra
bakarrik geratzen da. Urak
egiten dizkion laztanak, fereka
goxo horiek,
faltan botatzen ditu hondarrak.
Orduan uraren zain geratzen da,
beste egun bat, berriro ere, beti bezala.

Badator, badator ura berriro.
Berriro sentituko ditu haren laztanak,
berriro sentituko du haren freskotasuna,
berriro sentituko du haren bizitza.
Haren premia izan zuen, du, izango du.
Uraren hezetasuna, hondarraren droga,
izan zen, da, izango da.
Desiratu zuen, du, izango du.

Hondarra itsuturik zain dago.
Itsua bihurtu da dagoeneko,
itsuturik itxoiten du ura.
Begiak itxita, iluntasuna, beltza.
Ura itzuliko den sinesmena du,
eta guztiz ziur dago.
Hondarra, begiak itxita,
itsutasuna, maitasuna.

## ISPILUA

Larre berdean aurkitzen zen,
lili eder eta ahul hura.
Haren petaloak liluragarriak ziren,
politak ziren benetan, ederrak, baina
ez zuen sinesten.

Denbora aurrera joan ahala, itsusiagoa
ikusten zuen bere burua. Txoriek esaten
zizkioten hitz horiek, hitz eder horiek,
guzti horiek,
gezur hutsak ziren.

Lili hori itzaltzen hasi zen,
tristatzen, mingots bihurtzen.
Bere buruari min egiten,
petaloak kentzen, kolorea galtzen. Galdu
egin zen, betirako. Galdu zen.

Tristea da, lili horrek ispilu bat besterik behar ez zuelako.

# POESIA B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Otsaila

Julene Iturbe Epelde
Azkoitiko San Jose de Floreaga
Azkoitia

## DOINUA: “Haizea dator ifarraldetik”

Haizea dator ifarraldetik
laztanduz negu zarpaila,
izotz artean itzalia da
sugar ororen bataila
hautsi artean sentipen oro
hesitu zuen sarraila
izoztutako bi malkorekin
berotuz doa masaila,
zurrumurruei gailentzen zaie
elur maluten ardaila,
Eguzki bako arrats beltzean
zuriz jantzi da otsaila.

Enarak beren habietatik
hegaka joanak dira,
aurten otsaila, hotz bezain goibel,
beti legez iritsi da
ta_hamargarrenez harrapatu nau
argazki honi begira,
sutondoaren txoko batean
sentipenak jira-bira,
bereizi ezin ditudalarik
egia, amets, desira…
oroitzapenei bultzaka baina
negar tantei ezin tira.

Izarraitzeko gailur batean
gizon batek dirau hala,
ardo trago bat eskutan eta
ahoan irri zabala,
gogoz hartzen du buru gaineko
txapel beltzaren itzala,
nahiz irudi soil bat dela jakin
ez da irudi hutsala
nahikoa baitut konturatzeko
beragan jaioa dala
tontorreraino ekarri nauen
mendi za(ha)r honen magala.

Izaeraren galde_ikurretan
egin dut mila zalantza
besteenaren aurka baitoa
askotan nire norantza,
baina halere, dirudienez,
badaukat norbaiten antza,
zuk ere maite omen zenuen
bertso-kantuen balantza
ta nahiz azkena galtzen den hori
ei den gure esperantza,
ezin dut kendu zuri kantatu
ez izanaren arantza.

Abuztu batez iritsi eta
otsailean abandona,
enarenaren neurrira_egina
zenuen zure kanona
ta gaur beroa, dardara ditut
oroitzapenen sintoma
hamar bat urte baitira utzi
gintuzun negutik hona,
beste otsail bat zu barik heldu
zaigu, sarkor nahiz sakona,
sutondoaren baitan oroitzen
zaitudalarik, aitona.

# Trantz(sex)ea

Aroa Arrizubieta Barredo
Gasteizko Armentia Ikastola
Vitoria-Gasteiz

# TRANTZ[SEX]EA

Zer maite dudan
galdetzen didate nahiz
eta dudana maite dudala esanez
aldentzen naiz.

Maite dudana.
Dudana maite.

Kanpoko mamu guztiek
barruan diraute,
itxiz maitasunaren hainbat ate.
Horrenbeste buruhauste,
ezaba litezkeen hainbeste kalte...

Baina nola ez,
genitalek definitzen naute.

Genitalek definitu.
Definitu genitalak.
Wikipediaren arabera
“organo sistema sexualak”.
Gure arabera,
“hara behera” begiratuta
zer garen dioten atalak,
moztuz gure hegalak.

Bihotzera zuzenean
doazen balak.

Ez dut jakiten
nahi dudana naizen,
gustura nagoen dudanarekin,
beti izango al naizen zikin,
futbolean lokatzarekin,
korrika arin...
Ez dut jakiten
ezingo naizen inoiz
jantzi pinpirin,
soineko batekin
begiratuko nauten berdin...
Ez dut jakiten
ikasi behar dugun
bizitzen dugunarekin
edo nahi dugunari
behar diogun ekin.

Ez dut jakiten...

Kale-txakurrak beti
hasten zaizkit zaunka.
Gizarteak arazo bat dauka,
begitan hartuta nauka,
hau da hau mauka,
ezin dudala ezer hauta,
jarraitu beharreko
horrenbeste pauta...

Ez da erraza joatea
itsasoaren aurka.

Itsasoaren aurka.
Itsasoa ere aurka.

Eta ni, ezer egin ezin duen arraina,
gau eta egun iraina,
ez naizela besteak haina.
Nazkatu naiz baina.
Hartu ondoren zortzi bat kaña...
Begira jarri gara
ni eta odol koloreko zaina,

eta gustatu zait
arrakalaren min usaina.

# Aske

Maddi Aiestaran Iparragirre
Beasain BHI
Beasain

# ASKE

**Goazen suabe-suabe,**
**zu eta ni, parez pare,**
**eskuburdinarik gabe,**
**geure buruaren jabe.**

Zurekin hegan banoa,
orok berdin du,
askatasunean elkar
ezin da mindu.
Baneki hitz eman didazula
ez duzula esango sekula:
“beti maiteko banindu”.
Gogoko bazaitut ere oso,
zurekin banago ere goxo,
ez dizut ezer agindu.

**Goazen suabe-suabe,**
**zu eta ni, parez pare,**
**eskuburdinarik gabe,**
**geure buruaren jabe.**

Gaur irrikaz noa zure
aldamenera,
ororen gainetik baita
nire aukera.
Elkar aske maitatzen denean,
ez da onartzen agidanean,
ez agindu, ez galdera.
Gaur zara nire maitekidea,
utzi hautatzen neure bidea,
behartu gabe hobe da.

**Goazen suabe-suabe,**
**zu eta ni, parez pare,**
**eskuburdinarik gabe,**
**geure buruaren jabe.**

Gozoa bezain gazia
den zaporea,
pixkana indargabetzen
den kolorea.
Maitasun itsuaren freskura
bihurtzen denean bahitura,
sentimendu traidorea.
Jada bion arteko jostura
ez ote da bihurtu lotura?
Ez naiz inoren lorea.

**Goazen suabe-suabe,**
**zu eta ni, parez pare,**
**eskuburdinarik gabe,**
**geure buruaren jabe.**

Maite-sugarra ezin da
inoiz zorroztu,
prestasun gehiegizkoak
oro du hoztu.
Zoriontasunaren atean,
atsegintasun bete-betean,
ezin baita ezer ostu.
Ez dezagun bihurtu abusu,
zinezko maitasuna baduzu,
ez niri hegorik moztu.

**Goazen suabe-suabe,
zu eta ni, parez pare,
eskuburdinarik gabe,
geure buruaren jabe.**

Zaitut gurari goxoa,
zaitut kutuna,
itzaltzen ez zaidan sua,
berotasuna.
Baina jarraitu nahi nuke hegan,
egunik igaro gabe ziegan,
entzun nire oihartzuna:
Inor ez da inoren mirabe,
bata ez da bestearen jabe,
maite dut askatasuna.

**Goazen suabe-suabe,
zu eta ni, parez pare,
eskuburdinarik gabe,
geure buruaren jabe.**

# Hegaka

Haizea Urkixo Gorostiaga
Laudio Ikastola
Laudio

Bat-batekoa
izan zen,
ilargiaren distirak
sorgindu ninduen,
itsutu,
maite-poztu.

Nire ilargi bete
bilakatu zinen, sorgin
errebelde, basati,
eder.

Bat-batekoa
izan zen, izarren
hautsen modura
jauzi nintzen

eta ekaitzaren ordez,
maite-mina etorri zen,
barearen ostean enbata
datorrela dioten arren.

Suak erre ninduen,
maitasunarenak,
ezjakintasunarenak,
baina
pixkanaka-pixkanaka
hauts kiskaldua
txori bilakatu zen,
indarrak hartu
eta hegan eginez;
eta
pixkanaka-pixkanaka
ikasi zuen
maitatzen
eta pixkanaka-pixkanaka
maitatzen ez jakiten egun
baten
txoriak kantatzen ikasi
zuen arte

Orduan
hasi zen
poesia
errezitatzen.

Jendeak ez zuen ulertzen,
zarataka zebilela zioten, ez
zekiten entzuten, bihotza
gor zeukaten.

Eta horrela hasi
zen
*maite-mindu* hitza
erabiltzen,

eta horrela amaitu nuen nik ere olerki
hau eskribitzen,
jendea maitatzen ikasten
eta sorginari hegan egiten uzten.

# Zuri esker

Laiene Aranburu Gorrotxategi
Oiartzungo Haurtzaro Ikastola
Oiartzun

Bi urte ei ditut;
bizitzeko, arnasteko,
hausnartzeko. Zer
egin dezaket?

Ez naiz bera,
ahulago sentitzen naiz.

Ulertzen nire hitzak?

Erori egiten naiz,
baina gero eta zailagoa
egiten zait altxatzea.
Amore ematen dut.
Ametsak ziren horiek
desagertzen ari dira, ez
dira itzultzen.
Sumina da nire jabe.

Ulertzen nire hitzak?

Uste nuena baino handiago
sentitzen naiz, era berean
ahulago

eta tristeago,
baina bizirik nagoela ikusten
laguntzen didazu.

Ulertzen nire hitzak?

Bizitza osatzen duten une txikietan,
bizirik sentiarazten nauzu.
Bizirik nauzu.
Bizirik nago.

Ulertzen nire hitzak?

Erortzen den arrosa petalo bakoitzaren
lurrina sentitzen dut, nire ondoan
zaitudalako.

Haizeak ekarritako luma batek nire
larruazalarekin tupust egitean
sentitzen dudan zirrara
biziberritzen dut alboan zaitudanean.

Ulertzen nire hitza

Erori, erortzen naiz, eta
jausiko naiz.
Baina altxatzen naiz eta
goratuko naiz.

Zuri esker.

Ametsak ez dira desagertzen, hor
diraute, nik landu zain.

Ez dago amore ematerik ez
dut etsiko.

Zuri esker.

Ez dago suminik, zoriona
da nire jabe. Egoera
gogorrenetan ere Zoriontsu
izaten ikasi dut Eta
zoriontsu naiz.

Zuri esker.

Ulertzen nire hitzak?

# PROSA A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Lubiankan

Peru Amorrortu Barrenetxea
Gasteizko Ekialdea BHI
Vitoria-Gasteiz

## На Лубянке (Lubiankan)

Negarrak. Aieneak. Garrasiak.

Soinu lazgarriak iristen dira zure belarrietara. Entzuten dituzu? Alboko geletan dauden pertsonenak dira. Kolpeek, ukabilkadek, ostikoek osatutako perkusio bortitzak eragindako min oihuak. Hezur hausturek eta kalanbreen ondoriozko erredurek sortutako garrasi latzak. Dardarka zaude. Ez saiatu kontrakorik adierazten, urrunetik barruntatzen zaizu. Beldur zara, laster abesbatza makabro horren parte izateko beldur. Hortz dardaratien kriskitinak, zartailuak airea urratzen. Ez duzu ikusten. Zure begien aurrean, iluntasun amaigabea. Goialdetik datorkizun arraitasun apala besterik ez duzu nabaritzen, apika. Zure sudur barneko glandula pituitarioen bitartez, harategi eta kirofanoek duten odol garbitu berriaren usaina besterik ez duzu atzematen. Nire ahotsa da belarrietatik sartzen zaizun soinu artikulatu bakarra, animalia zaurituen eztarrietatik atereak dirudien garrasien soinu bandari gailentzen zaio, ganibeta hotz bat bezala zure tinpanoa, ointokia, mailua eta ingudea erdibitzen ditu gupidagabeki zure garunera iritsi arte. Zorionez zuretzat, burua inguratuz begi-belarriak estaltzen dizkizun trapuak inguruko soinuak apaltzen ditu. Zorionez, diot, honezkero

erotuta egongo baitzinateke izugarrikeriaren handitasuna hautemango bazenu. Ez zaude prest zure patu ilunari aurre egiteko. Ez oraindik, bederen. Sekula santan negar malkorik isuri ez duten gizonkoteak amatxori deika oihu batean, zigorrak bizkarrean eragindako ezin konta ahala zaurietatik isurtzen zaien odolarekin batera bizitzak ere ihes egiten diela sentituz. 10 gizonen artean bortxatutako gizon-emakumeak barrenak urratzen dizkietela sentiturik mesedez arren faborez jainkoarren geldi daitezela erregutzen dutenak. Min jasangaitza sentitu gabe giharrik mugitu ezinik gupida eske dagoen dohakabea, egunak baitaramatza jarrera antinaturalean kako batetik zintzilik, urik edo janaririk jasotzeke, gorputuz doan gorputza. Sufrikarioen sinfonia luzea da, eta oraindik lehenengo konpasean zaude. Etsi gaiztoaren abanikoa oso zabala da, gizakien aieruen ñabardurak, amaigabeak. Laster konturatuko zara horretaz. Ez dakit zer egin duzun, zein den zure hobena. Baina hori ez zait axola, eta zuri ere ez litzaizuke inporta beharko. Kontua da nire eskuetara iritsi zarela. Eta gai naiz zure beldurra hautemateko. Beldurra usaindu egiten da, goizero gure usain naturala mozorrotzeko gure buruari botatzen diogun perfumea bezala. Gizakion eboluzioak (edo endekatzeak) lo sakonean ezarritako gaitasuna, usaimena, kitzikadura egokia besterik ez duena behar azaleratzeko. Beldur zara. Urdailean jaio den izua zure gorputz osoan zehar zabaltzen da orain, metakarpoen puntetara iristen da gorputz adarrak zeharkatuz ondoren metatartsoetara jauzi egiteko, astiro baina hatsa hartzeko gelditu gabe, marabunta geldiezina nola, beldurrak ez baitu arnasten, ez baita biziduna bizia balu bezala jokatzen badu ere, haziz, ugalduz, biderkatuz doa, zure ezinegonaren pentzutan, eztarria hertsatzen dizu arnasa galaraziz, hiperbentilatzeko gogoa duzu ahalik eta oxigeno gehien zeureganatu eta bertan ez itotzeko, baina zenbat eta gehiago saiatu aire

gehiagok ihes egiten dizu eta ez zara ezpainen artetik ihes egiten dizun karbonoa gas bitalarekin ordezkatzeko gai, eta bitartean izu laborriak ez dio hazteari utzi: prozesu erretroelikatzaile bati jarraiki, defentsa mekanismoa izan behar zuena zure kontra irauli da eta etsaiari bidea egin dio zu behin betiko akabatzeko, orain burmuineraino iritsi da, munstroaren sorburu baina bere besarkada hotzean jausten azkena, eta pentsamendu logiko oro fagozitatu du. Sinapsia etenda, orain instintuek gobernatu piztia besterik ez zara, bizirauteagatik auskan, arriskutik aldentzeko irrika bizian, baina oraindik ez dakizu arriskua non den ezta zerk mehatxatzen zaituen ere, haur jaioberria bezain kalte-bera eta zaurigarri. Instintuak bultzaturik, istant batean ehunka milaka urte egin dituzu atzera. Aspaldi arpeetan zehar zebiltzan gure asaba *homoen* parekide bihurtu zara. Zure azkazal ahulak eta beso-hankak, beste ezer ez duzu zure arrastoan dabiltzan harrapariei aurre egiteko. Ia deus ez. Eta zerbait zuri so egiten dagoela nabaritzen duzu, zure zintzurrera salto egin eta bertan jo eta akabatzeko, ondoren zure haragia jan eta zure odolaz bere egarria asetzeko. Ez zabiltza oker. Ni naiz zure sen atabikoak atzeman duen harrapari hori. Eta prest nago zu larrutzeko.

Pausoak. Danbatekoa. Aginduak.

Oinatzen zarata burdinkarak durundi ahula egiten du lozazko zoru eta hormetan. Bi gizonak ordura arte bakarrik egondako sotoan hirugarren bat sartu da. Ikusteko ezintasuna duena erabat ezustean harrapatu du sarkinaren etorrerak. Berehalako erasoari aurre egiteko prest, ez daki zer ekarriko dion bisitari misteriotsuak. Haren pausoak sendoak eta ziurrak dira, agintzera ohituta dagoenarenak. Durundika mintzatu zaio bere menekoa bide denari, eta, hasieran, itsu tenporala errieta egiten ari zaiola pentsatu du, horrenbeste

itzulinguru behingoz albo batera utzi eta metodo zuzenenera jo dezan. Baina laster konturatu da ez direla errutinazko galdera ohikoak besterik. Horrenbesteko usantza du aginduak emateko, non tonu zakar eta gaztigatzaile hori bere ahotsarekin mimetizatu baita, biak banaezin bihurtzeraino, edo, hobeto esan, pertsonak jokatzen zuen rolak pertsona bera ordezkatu duen arte. Besteak tonu apalean erantzun dio, baina ez zapalduriko mirabearen apaltasunaz, egoera kontrolpean daukanaren hoztasun nareaz baizik. Badakiela hor gauzak nola egiten diren, diotso.

Nolakoak diren imajinatzen saiatu da. Imajinazio bizia izan du beti, eta gorputza loturik eta preso edukita ere, irudimena beti da aske, sarritan guk mugak jarri nahi izaten badizkiogu ere. Baina gure ameskeriek ez dute muga moral edo zirkunstantzialik onartzen, eta lurbira osoko kartzela ospeleneko ziega ilunenean egonagatik, izuari gain hartu dio jakin minak. Aginduzalea burusoila irudikatu du, ez berez hala delako, bere buruari aire are kastrenseagoa emateko ile guztiak erabat inarrosi dituelako baizik. Bibotea dauka, urria eta txikitxoa, haren gizontasun zaurituak kontrakoa desiratzen badu ere gehiago hazten ez zaiona. Bota beltz iltzeztatuak, uniforme soila, berdin dio zein koloretakoa, kontua iluna izatea da, horko langileengan horren ohikoak diren orbanak ekiditeko. Bere aurrean eserita dagoena irudikatzen saiatu da, baina soslai lauso bat besterik ez datorkio burura. Hau ere kolore iluneko arropekin joango da, eta ilea erabat arradatua, apika. Baina ezin du bere ahotsaz gidaturik bere irudi zehatzik osatu. Edozein gizonen ahots kordek sortutakoa izan zatekeen ahots hura. Norbaitek bizia kenduko baligu, gehienok gure hiltzailea pertsona inportantea izatea desiratuko genuke. Azken batean, gurea heriotza anonimoa izango bada, hildako soil bat gorpuen legio batean, behintzat gure hiltzaileak ukan famak aterako gintuzke era-

bateko anonimatutik, eta gure izena historia liburuetako orrietan aterako litzateke, psikopata baten giza safariko garaikurretako baten moduan soilik izanda ere. Baina ahots hori berdin izan zatekeen aristokrata batena zein kale izkinako fruta-dendan irribarre batekin bezeroak artatzen dituen saltzailearena. Guztiok daramagu munstroa gure barruan, anatomiako txoko ezkuturen batean gordeta. Abagune egokiaren zain azalera irteteko. Gerra. Traizioa. Iraultza. Kontrairaultza. Kontrairaultzaren kontrako kontrairaultza, berkontrairaultza. Edo, besterik gabe, egun aproposa.

Hemen. Izenik ez zuten aipatzen bi gizonek lekuaz hitz egiterakoan. "Hemen", esaten zuten. Tabua balitz bezala. Izen beldurgarria, ezin aipatuzkoa, gizakume tantaiena dardararaziko lukeena. Orduan etorri zaio burura. Lubianka. Ezin ziur jakin han dagoen, baina milaka mingainek beste horrenbeste aldiz belarri zoliei xuxurla ezkutuan kontatutako istorio beldurgarriak datozkio burura. Ohiko bileretan tertulia kideetako bat manka denean, besteen begirakune hitsari soilik erreparatuta, "Zer jazo zaio?" galdera egin gabe jada erantzunda dagoenean. Lubianka. Infernuko zuloa. Bere aurrean eserita dagoen gizonaren ahotsa imajinatu du, harekin batera ingurukoen desagerpenen gomuta eta herio zurrumurruak zekarzkion izena esaten. Ez, ezin du jakin non dagoen. Baina ezjakintasuna bera ziurtasuna baino zaurigarriagoa da.

Orduan, urruntzen doan burdin hotsa. Ateak ixtean egin duen danbatekoa. Badoa. Ofizialak alde egin du, jakin mina aseta edo egitera zetorrena burututa. Eta bakarrik utzi du bere borreroarekin.

Oihalak tarratatzean sortzen duen zarata. Argi itsugarria. Xuxurla.

Zer moduz zaude? Barkatu suertatu den etentxoa. Itzul gaitezen gurera. Non geunden? A, bai, zu larrutzeko pronto nengoen. Bai, kliska itzazu begiak, ohi daitezela argira. Edo hobe ez. Ikusiko duzuna ez baitzaizu gustatuko, seguruenik. Begiak distira zaurigarrira ohitu zaizkio. Aurrez aurre flexo bat jarri diote, tungstenoa jadanik gori-gori duena eta erretina argitasunez aturatu diona. Mahai baten aurrean eserita dago. Ez dago ezer gainean. Bai. Badago. Bere aurrean, iluntasunetik zuzenean jaioko bailiran, bi esku ageri dira, besoen goialdearekin batera. Ukondoetara heldu baino lehen, gorputz adarrek bonbillak sortutako argitasunetik ihes egin eta belztasunean galtzen dira. Pertsona bat inferitzen du beso horien jabe, baina ezin du ikusi. Argi-ilun kontrastea bortitzegia da, estonagarriegia erretinarentzat. Hiltzaile anonimo baten meneko biktima anonimoa izaten arrai. Besoetan paratu du arreta. Eskumuturretaraino kolore beltzarekiko mahukez estalirik daude. Eskuei so egin die. Esku bortitz eta zakar parearekin topo egingo zuela uste zuen, baina horren ordez lehen begiratuan durduzagarriko femeninoak irudituko litzaizkiokeen bi esku dakusa.

Azkazal ondo zainduak, azal leuna. Horiek dira arimak gorputzetatik erauzten diharduen baten eskuak? Lipar batez, isildu egin da.

Lanpara atzealdeko iluntasunean, ipurtargi batek dirdira egin du gauean. Baina ez da ipurtargi bat. Tabakoa erretzean jaiotzen den txinparta ezagutu du. Oraindik ekoizteke dauden ehunka film amerikarren estiloari jarraiki, aurpegira bota dio ke hodeia. Sudurretatik sartu zaio usain nazkagarria. Aulkiak zarata egin du altxatu denean. Tira ba, ulertuko duzunez, nik ez dut plazerik ukanen egin behar dizkizudan gauzengatik. Uler ezazu, ez da ezer pertsonala. Esan beza nahi duena. Berak badaki erabat pertsonala dela. Sufrimen-

duak beti baititu subjektu pasibo eta agente eragile bat. Behinola letretako ikasle fin izandakoaren bristada horrek aldartea aldatuko ziokeen beste edozein egoeratan. Baina ez orain. Eskuak mahairen izkina batean daude orain. Iluntasunetik ukalondoak agertu dira, eta gorputz baten beheko aldea dakusa orain. Hura ere beltzez jantzia. Gerrikoaren belarri grisak dirdira egin du. Badaki gezurra dela. Bost axola diola lanbide duen edo ez. Gozatu egingo duela eskua gainean jartzen dionetik hasita amaieraraino. Beste urrats bat eman du. Baina egon hadi lasai, ez dik asko iraungo. Ez zaik inporta hika egiten badiat, ezta? Azken finean, elkarrengandik oso gertu egongo gaituk… baina ez luzarorako. Lasai, hire gisako dozenaka gizaseme igaro dituk orain hi eserita hagoen lekutik. Batek ere ez ditik lehen lau orduak gainditu. Ez diat uste hi desberdina izango haizenik. Beste pauso bat. Jada bere zozkoa ikus daiteke, burua izan ezik. Orain eitea ikus diezaioke. Begiradak gurutzatu dituzte. Zerbait nabarmengarria bereizten saiatu da bisaia horretan, multzoaren anonimotasunetik atera eta borreroari ezaugarri bereizgarria emango dion trazaren bat. Deus ere ez. Beste inorena izan daitekeen aurpegia da, ez da bereziki maltzurra, ez onbera, ez sadikoa; ez ederra, ez itsusia; ez basatia, ez otzana; ez alaia, ez hitsa; ez oiesa, ez atsegina; ez mardula, ez argala; ez korromioz betea, ez maitabera. Denak bat bera ere ez, edozer izan liteke hartzen duen keinuaren arabera. Edozeinen aurpegia, berea, auzokoarena, urlia edo berendiarena. Sufriarazten duena, orduan konturatu da, sarri ez baita psikopata. Haren begi beltzek bakarrik merezi dute arreta. Bi puxtarri txiki dirudite bisaia monotonoan, ilargi beltz, herio argi. Haren albotik igaro da, hizketan jarraitzen duelarik. Emadak segundo bat. Ene tresnak hartzeko nahikoa soilik. Hementxe ditiat, beti prest. Deitoragarrienetik ere bada zer ikasia. Zaratak entzun ditu, bilgoren bat desegingo

balute bezala. Burdinaren hotsak ebakiaren gomuta hotza azalerarazi du. Berriro hurbildu dira urratsak. Gainera, ez duk horren txarra izanen… Azken finean, heriotza duk gerta dakiakeen okerrena.

Zuritasuna. Durundia. Ezintasuna.

Esnatu eta berriro jaiki da bizien mundura, tarte bat konortea galduta egon ostean. Argi itsugarri batek begiak erre dizkio. Ez da ezer ikusteko gai izan teilatuko lanpararen arraitasun itsugarrira ohitu den arte. Lipar batez, esperantza erabat zentzugabea ernatu da bere baitan: dena ametsa izan dela, amesgaiztoa hobeto esanda, baina loaren esparru onirikoaren kaotikora mugatua, irreala, gezurrezkoa. "Orain ohean nago", pentsatu du bere artean, izararik ez baina jantzi zuria gainean badu ere, "Ohean. Beste edozein moduko eguna, egun normala, datorkit orain, goizetik arratsera. Gertatu dena ez da benetakoa, dena nire burmuinaren eldarnio lotien fruitu izan da, altxatu eta dena betiko berdina izango da, berdina, berdina…". Luzaro geratu da ohean botata, berdintasun nahia mantra bat bezala errepikatuz. Luzaro oldoztu du ametsaren aukeraren inguruan. Hareazko gazteluak nola, horrela desegin da tupustean, errealitateak deiturik.

–Esna al hago? — kasketadun haurraren burugogorkeriaz, ez du onartu nahi gertatu dena aldaezina dela. Ez dio aurpegira begiratu nahi iratzarri nahi duen horri.

–Noski esna hagoela. Altxa hadi.

Teilatuko lanpararen dirdaira oztopatzen duen buru bat ageri da bere gainean. Bere betaurrekoen gainetik begiratzen dio sendagile bide denak: bisturia du eskuan, eta bata zuria soinean, lauzekiko gelaren zuritasun itsugarrian mimetiza-

tzen dena. “Odola errazago garbitzeko” igaro zaio burutik. Berriro ere, izu laborriak hartu du. Disekzio eta zatiketen irudiak etorri zaizkio burura. Askatzen saiatu da, baina uhalek lotzen dute ohatilara. Artegatasuna nabariturik, medikua tonu neutro, lehor, gatzgabean mintzatu zaio:

–Hago lasai. Laster izango haiz libre. Ondo hago. Hiru saihets hautsita, hortzen bat faltan… Aurrera aterako haiz.

Agurtu ere gabe, gizona itxuraz ohatila besteengandik banatzen duen errezela zurietako bat paretik kenduz aldendu da alboko ohatilara. Bertan, begi ertzetik formagabeko zerbait atzeman du, izara batekin estalia. Izarak firfira leun batez galarazi dio ikusmena, agonduta dagoena bizirik edo aspaldi joanik dagoen asmatzeke. Doktoreak zerbait xuxurlatu dio, eta aurrera jarraitu du. Urrunean galdu da haren ibileraren soinua. Galeria luzeren batean daude, antza. Supituki, argiek alde egin dute, eta iluntasunean geratu dira. Arimako ilunpearen ondoren, benetakoa nagusitu zaio.

Handik ordu pare batera esnatu da albokoa. Lanturuka igaro du gau osoa, eta badirudi arnasa hartzen duen bakoitzean arimaren zati batek alde egiten diola. Geroz eta gehiago kostatzen saio arnastea, odolak birikak hartu dizkio, egiten duen soinu borborkariagatik. Badirudi aiene egiten duen, arnas egiten duen aldi bakoitza azkena izango dela, baina erabakimen sinestezin batekin atxikitzen zaio bizitzari. Aienea. Arnasa. Aienea. Arnasa. Aienea. Arnasa. Goizaldean hil da, azken hasperen sakonean bizi indar guztia jarri ondoren. Bi uniformedun etorri dira, eta zaku batean sartu dute gorpua. Izarak alboratu dituzte, albokoek ongi ikus dezaten. Ezkerrekoak begiratu egin dio. Begiradari eutsi dio oheratuak. Uniformedunaren niniak agonduarenetik zakura saltoka ibili dira apur batez. Gero, keinu bitxia egin du zakuari

begira. “Isiltasunaren ordaina” adierazi nahi balu bezala. Biek alde egin dute, galeria azkenean isilik eta etzandakoa bere gogoetekin bakarrik utzita. Iluntasunean bakarrik eta etsita, bidegabekeriaren tamainaz jabetu da. Berdin dio, noiz, nork, nola, zer aitzakiaren pean. Ekintza berbera orain gaitzesten dutenek, noizbait egin dute, edo egingo dute, eta besteari begiko habea nabarmenarazten dietenek ez dute eureneko harritzarra ikusten. Esku batekin ezetz esan, eta bestearekin babesgabeei gauza bera pairarazten diete. Sufrimenduak berdin eragiten die izaki guztiei. Guztiak sentitzen dira boteretsu hura erabiliz. Berak ezin izan du jasan. Eta badaki gomuta horrek bizitza osoan jazarriko duela.

Eguerdi aldera, aurreko bi uniformedunek askatu egin dizkiote uhal beltzak eta lepoa estutzen zion zirgiloa. Baina ez du presio amiñi bat ere desagertzen sentitu. Beste zirgilo bat darama, ikusezina, baina askoz eramanezinagoa. Hitz egin du, isildu behar zukeenean. Oihu eta negar egin du, jipoitu dutenean. Ausartek kenduta, denek egiten dute berak egiten duena. Denak gaitzesten dituzte berdin. Eta, egiaren orduan, gutxi batzuk baino ez dira behar bezain ausart izaten. Askotan, ausardia bera ere ez baita nahiko horrelakoetan.

Bulego antzeko batera eraman dute. Mahai bat, koadro bat horman, gizon bat eserita aulkian. Burokratak begiratu hotza zuzendu dio. Zenbaki bat baino ez da harentzat, bere aurretik igarotzen zaizkionetatik bat. Ez zaio axola zer jazo, eta ez du galderarik egingo. Ez daki ezer, eta nahiago du horrela jarraitu. Horrenbestez, ez du susmorik. Tarteka bulegoraino heltzen diren oihuak ez ditu entzuten. Aurrean eserita dituenen zauriak ez ditu ikusten. Bizitza lasaia daraman burokrata da. Paperetan zigiluak jartzen ditu, orain harenean bezala. Zigilua hartuta, atetik bultza eginez atera dute uniformedunek papera ozta-ozta hel dezakeen gizona.

Azken begiratu bat egin dio zigilatzaileari. Buelta emanda dago, eta ziur dago bere aurpegia ahazteko ahaleginak egiten ari direla. Galdetzen diotenean, ezer ez jakiteko. Ahazteko gaitasun natural ikaragarria baitu gizakiak.

Berriro iluntasuna. Begiak itxita, sartu zen bezala atera dute. Behaztopa eginez, kalexketan barna ibili dira, denboraren eta espazioaren zentzua galdu duen arte. Orduan, golpe ikaragarri bat sentitu du, eta gero ezer ez. Ez ditu urruntzen diren pausoak sentitu, ezta uniformedunetako batek bota dion listukaldi erdeinuz betetakoa sentitu.

Hotza. Gaueko haizearen firfira. Odolaren metal gustua.

Kalean nago. Itxuraz libre, baina betirako preso. Zulo higuingarri horretan esan ditudan gauza guztien mende. Ezin izan dut jasan. Mina, sufrimendua. Latzegia dena. Ez nuen beste aukerarik, dena esatea baino. Haien izena esatea baino… Ez, baina. Baneukan isilik egoteko aukera, bai, baina azken finean gizaki hutsa naiz, inork ere ez du, ezin dezake izan altzairuzko gorputza eta etengabeko laido eta gutxiespenei nola aurre egin, nola jasan eta ezer ez esan, orain beti izango ditut atzetik beraien itzalak txerriak odolkitara bezala heriotzara bidali ditudan lagunenak baina pentsa bestela ni egonen nintzateke hila hori ez da aitzakia ordea nire koldarkeriak hobiratu ditu maite nituenak haiekin egin dut aldaketa eta orain beraien gorpuek okupatuko dute nireak bete behar zuen areka eta txakurrek haien haragi izoztuak jango dituzte pixkanaka eta udan euliek haiengan jarriko dituzte euren larba nekrofagoak zortea lagun aldiz norbaitek aurkitu eta gupidaturik lur emango die baina niri ez zait hori gertatuko modurik gerenean baitarrait bizirik, hautsitako saihetsen batek birikak edozein momentutan zula badiezazkidake ere eta orduan haien patu berbera ukanen

dut kalexka ilun honetan, altxa nadin eta noan aurrera, beraien aurpegiak ikus ditzaket aurrera egiten dudan heinean eta gauerdiko haizeak ahots salatariak dakartza nigana zu izan zara zu zara hiltzaile zu ehorzle oilobusti salataria besteak saldu zure larrua salbatzeko eta arrazoia dute malko zuri hutsa naiz bihotzean tolesak besterik ez dituena dohakabea ni ez dut nora jo eta alderrai nabil herrenka hara hor dago ibaia ospel eta iluna, eta zergatik ez bukatu lehenbailehen, azken batean ez zuen arrazoirik, hobe ezereza, bai, mamuek jazarrita bizitzea baino. Barandaren aurrean nago. Oraindik salbu, baina nahikoa da pauso bat ematea. Hotzak sentsazio guztiak ezabatzen ditu. Ezin dut jasan.

Zalantza. Gauzatu ez den akabera. Ihesi doanaren pauso kordokaria.

Eraikinen itzalek ingerada dardaratia irentsi dute. Izarrek dirdaira egiten dute ortzi osoan zehar. Ez dago inor metropoliko kaleetan. Moskova ibaiko ur grisak lasai higitzen dira bere arroan, astiro, gelditzeke. Denbora ere aurrera doa, tantaka, geldiezin. Baliteke ahaztea. Noizbehinka bakarrik gomutatzea sekula oroitu nahiko ez lukeen hura. Baina memoria iturri ezin agortuzkoa da. Agian, egunen batean, harekin topo egingo du. Kaletik gurutzatuko dira. Orain dela urte asko, bizitza eta gorputza suntsitu zizkion tipoa ezagutuko du. Hark ez du bera ezagutuko. Aurrera jarraituko, lepoa tente, ezer txarra egin izanaren kontzientzia faltaz. Edo apika jakingo du. Baina ez dio axola. Berak, aldiz, begiak makurtuko ditu, eta harengandik urrunduko da. Urteen joana gorabehera, ziur dago bera dela. Agian bigarrenez lortuko du oroitzapenei ihes egitea. Edo beharbada etxera heldu bezain laster egingo du bere buruaz beste. Leihotik salto egingo, kalean jolasean dauden haurrei umezaroa bidegabeki lapurtuz, edo eskumuturretako zainak

ebakiz gorrituko du zorua, panpina zintzilikari bihurtuko da. Baina litekeena da egun hori inoiz ez iristea. Askoz lehenago bihurtzea bizitza jasanezin. Bitartean, edonon ikusiko du sadiko haren aurpegia. Harena, eta haren mende zegoela salatu zituen pertsonena. Edozein eitek gogoraraziko dio irribarre oker hura, buru leun eta soildu hura, esku hain zaindu haiek. Nahiz eta harenak ez izan. Borreroak baditu milaka aurpegi.

# Gerrako Hizkuntzan

Naia Luzarraga Ellis
Gernika BHI
Gernika-Lumo

Iritsi da eguna. Nire idazmahaiaren aurrean nago eserita, helburutzat agurra idaztea dudala, edo baliteke laster arte bat izatea, nork jakin.

Azken begirada eman diot logelari. Ezkerraldean apalategi handi xamar bat dago, kutsu politiko eta sozialeko liburuz josia. Gehienak, frantsesez idatzita daudenak (bertoko hizkuntza ofizialean), nire "maman Valerie"-k oparitutakoak dira, emakume jantzia eta gai politikoetan jakituna izateaz gain, lehenengo emakume sufragisten parte izan omen baitzen. Besteak, berriz, gaztelaniaz idatzita daude eta berri usaina nabari zaie oraindik, nik neuk erositakoak baitira; hauek, ideologia marxistaren linea jarraitzen dute batik bat, baina badaude Bakuninen ideietara gehiago hurbiltzen diren beste batzuk ere. Logelaren beste magalean berriz, "papa Antoine"-k, nire logelan sartuta ordu luzeak igaro eta oraindik lagunik ez nuela egin ikusita, nire hamargarren urtebetetzean oparitutako egurrezko zaldia ikus dezaket. Honen ondoan, atetik ez oso urrun, gaur bertan ekin beharko diodan bidaian lagun izango ditudan maletak daude nire zain.

Dena dago prest, ezin dezaket atzera egin. Hartu dut bolaluma, agurra idazteko prest. Ez da senideei malkoz beteriko tintaz idatzitako eskutitza, ezta aspaldiko maitale bati egin beharreko muxu zaporeko aitormena ere; nire betiko

amesgaiztoari zuzendutako agurra baizik, edo probokazioa hobeto esanda. Jada ez diodala beldurrik adieraziz, bidaiaren helmugan aurkituko dudanari aurre egiteko prest nagoenaren ikur izango den probokazioa.

Inoiz ahaztu ezingo dudan zazpi hitzez osaturiko esaldi bakarreko agurra izanagatik, latza egiten zait idaztea, mingarria akaso. Nik neuk ume xaloa nintzela oihukaturiko zazpi hitz, besterik ez. Ez dira inoiz oihukatu ditudan hitz gogorrenak edo arriskutsuenak, ezta hurrik eman ere. Izan ere, esandakoa arbuiatzetik urrun, harro sentiarazten nauen esaldia da; hainbestetan adorea zein amorrua pizteko erabili izan dena. Orduan, zergatik dira nire amesgaiztoaren parte? Leku eta une okerrenean esan nituelako, nire bizitza eta gehien maite nituenena hankaz gora utziz.

1940ko apirilaren egun beroegi batean hasi zen nire amesgaiztoa. Sei urte bete berri nituen eta urtebete lehenago iritsi ginen Galizia hego-ekialdeko Laza izeneko herri txiki hartara. Lazako herrian izua, mesfidantza eta saldukeria zen nagusi. Gainera, azkeneko hilabetean ahopeko txutxu-mutxu nahiz akusazioak areagotu egin ziren: orduan legez kanpo zegoen Espainiako Alderdi Komunistako informatzaile nagusienetako bat herrian bertan edo inguruetan ezkutatuta zebilen.

Hura ikusita, Lazako herritarrak egunero bizpahiru aldiz elizara joateaz eta eskolan edo lanean frankismoarekiko gorazarre sutsua egiteaz zein bando errepublikarrari irain gogorren bat botatzeaz ziurtatzen ziren, guardia zibilek are eta sarriago ematen zituzten arrazoirik gabeko jipoiak saihestu nahian.

Dena den, nire familia eta ni herrira gerra zibila amaitu ondoren iritsitakoak izan arren, poliziek familia otzan eta

urguritzat hartu izanaren “ohorea” genuen nonbait, eta ahalik eta arreta gutxien erakartzeaz arduratzen ziren nire gurasoak.

Berez, nire jaioterria Mieres izeneko Asturiaseko udalerri nahiko handia zen, errepublikarren gune nagusienetakoa izateagatik ezaguna. Izan, gerra aldian Asturiasko Printzerria armada matxinatuaren aurrean erresistentzia sendo eta kementsua aurkezteaz gain, asturiar askok militarki parte-hartze aktiboa agertu zuten. Horregatik, familia dezentek (bai errepublikar, neutral zein frankistak izan) Espainiatik ihes egitea edo frente nazionalak oztoporik gabe hartutako lurraldeetara (Galizia, esaterako) joatea erabaki zuen.

Halaber, Galiziako herri txiki hartan gehiengoa iritsi berria zenez, Lazan jaiotako bakar horiek (nire lehengusu Pedro, besteak beste), Guardia Zibilaren oniritzi eta uste ona zuten. Tuberkulosiak, 13 urterekin umezurtz utzitako gazte apal eta atsegina zen Pedro, bizitako egoera latzak gazte sumari eta zuhurra bihurtu zuena. Horrenbestez, gerra zibilak eztanda egin zuenean oraindik adingabeko umezurtza zen, hots, jarrera politikoari dagokionez gerratik itzultzeko aukera izan zuen.

Egia esan, garai hartan nik ez nuen ezer ulertzen. Bi bando zeuden antza: errepublikarrak eta nazionalak. Baina ezingo nuke esan nortzuk ziren onak eta nortzuk txarrak, nori galdetu kontraesan asko zeuden eta nahastu egiten nintzen. Baina tira, bost axola, hori helduen arazoa zela zioen amak. Oraingoz, maisuak zioena errepikatzea eta esandakoarekin beti ados agertzea zen nire betebeharra.

Asteazkenero bezala, egun hartan ere goiz-goizean esnatu nintzen. Nire belaun txakilak estaltzen zituzten praka

zabal batzuk eta amak artaz garbitzen zuen alkandora di-da batean jantzitakoan, katilukada bat esne arrapaladan edan eta pasa den asteko ogi puska hartu nuen eskolako bidean jateko asmoz.

–Ez ezazu ahaztu saski hau Concepción andreari eramatea –gogoratu zidan amak ezkaratzean sartu eta arropa garbiz beteriko saskia nire besoetan jarriz.

–Ama, ez dut astirik, berandu iritsi naiteke eskolara –erran nion mainak eginez –gainera, lehenengo orduan maisu Jesus jaunarekin dut klasea –jarraitu nuen, astebetean kopeta zaplazteko batez markaturik eraman behar izan nuela gogoratuz.

–Ez zaitez arduratu –erantzun zidan amak samurtasunez eta bekokian muxu emanez –nire izeko oso larri dagoenez, aita eta biok Baldriz-era joan behar genuela esan genion atzo Jesus jaunari, badaezpada; eta beraz, berandu iritsi zintezkeela.

Zertxobait lasaiago, baina oraindik kezkatuta, amari eskuarekin agur esan eta ziztu bizian irten nintzen etxetik, saskia gogor oratuz.

Biziki gorroto nuen Lazako eskola. Hala ere, banekien eskolara joatea eta maisuaren esana betetzea zela nire lana; ezin nien gurasoei huts egin. Aitzitik, Jesus maisuarekin klasea nuen bakoitzean ondoezik sentitzen nintzen. Maisua frankista amorratua zen, apaiz izandakoa, eta ikasleen espiritu nazionala sustatzea zen bere eginkizuna, Franco idealizatuz eta honen aurka zeudenei biraoak botaz; gizon gupidagabea benetan. Hori gutxi balitz ere, azkeneko hilabetean zabaldutako zurrumurru hura zela medio, Jesus jauna bere

klaseetan itaunketa onartezinak egiten hasi zen, ikasleei euren familiei buruz galdera mutiriak eginez. Oraindik hitz askoren esanahia ezezagun eta gerraren zergatia ulergaitza egiten zitzaien umeen lañotasuna zen bere iskilu: lehenago edo geroago, noizbait gurasoek seme-alaben aurrean politikari buruz esan behar ez zuten zerbait errepika baitzezakeen ikasleren batek, bere gurasoak salatzen zebilela jakin gabe.

Izan ere, Jesus jaunak ordurako bere itaunketak "arrakasta" izatea lortua zuen. Hiru aste lehenago gertatu zen. Alberto jauna atxilotuta eraman zuen poliziak; bere semeak salatu zuen.

Seme hura, "Boldro" ezizenez ezaguna, gelakide izan nuen. Oso ume lotsatia zen, irakasleek begitan hartua zutena. Anaia komunista izateagatik kartzelaratu zuten urte hartako otsailaren 8an eta ama gaixotasun ezezagun batez hil zen egun batzuk geroago.

Baina poliziak emandako bertsioa ez zetorren bat egiarekin, jakina; beste askotan bezala, maisu Jesusek klase aurrealdean belauniko eta liburu astun batzuk eskuen gainean eustera zigortu zuen "Boldro". Baina oraingoan, bere aitari buruz galderak eginez, etengabe, honi azpiak jaten zion bitartean. Gelakideek aldiz "Gorria! Zapoa! Traidorea!" oihukatzen zioten. Azkenean, "Boldro" negarretan blai, Jesusen galdera guztiei baiezko erantzuna eman eta egun batean bere aitak "norbaitek faxistak isilaraziko balitu…" esan zuela aitortu zuen; eta hori nahikoa zen: bere aita kondenatu berri zuen.

"Boldro" eskolatik kanporatua izan zen, baita etxetik ere. Elizaren aurreko etxe baten kanpoaldean egiten zuen lo, norbaitek gaueko iluntasunaren gerizpean utzitako artilezko

burusi lodi baten babesean. Hezurretan, gaixorik eta umeek jaurtitako harriek egindako zauriz beterik zegoen, Angel guardia zibil jaunak tiro batez hil zuenean (hura ironia). "Arratoi satsu eta erikor batekin nahastu zuelako" bere esanetan; "mutilak andre bati janaria ostu eta polizia-agente bati eraso egiteagatik" poliziaren informearen arabera.

–Egun on, maisu Jesus jauna –esan nion arnasestuka, klaseari hasiera ematen zion kanpai hotsarekin batera gelara sartuz. Maisuak betaurrekoen gainetik begiratu zidan mespretxuz, baina zorionez ez zuen ezer esan.

Egunero legez, *"Cara al sol"* ereserkia abestu genuen. Ondoren, maisuak ahozko azterketa bat egingo genuela esan zigun. Gaia: "Gure nazioaren izen ona berreskuratu duen horri esaldi laudagarri bat, edo traidore ziztrin eta gaixoei esaldi iraingarri bat eskaintzea". Ilaran jarri eta banan-banan geure gurasoei entzuniko esaldiren bat bota genuen. Nahikoa iruditzen ez zitzaizkion esaldiak esandakoek, egurrezko erregelaren kolpea jasotzen zuten atzamarretan eta azterketan "gutxi" aterako zutelako mehatxua; isilik geratzen zirenek edo zer ikusirik ez zuen astakeriaren bat jaurtitzen zutenek ostera, kokotean liburuaren zanpateko galanta eta ikasgaia suspenditu zutelako berria.

Nire txanda iritsi zen. Bota nuen. Ez nekien zer esan nahi zuen, baina hitz gogorrak ziruditen. Aitari entzuniko esaldia zen, zazpi hitzeko esaldia; irratia entzuten zuen bitartean esandakoa. Amak errieta egin zion, hainbestetan errepikatu behar izan zuen esaldia botaz: "herri honetako etxeetako hormek belarriak dituzte". Gainera, ni aurrean nengoenez, etxetik kanpo horrelako esaldirik ez esateko eskatu zidan, helduen hitzak baitziren. Baina, zer arraio, ni ez nintzen ume mokoa jada eta nire lagunek txarragoak esaten zituzten.

Jesus jaunak keinu ulergaitza egin zuen. Haserretura eta aldi berean harrituta iruditu zitzaidan hasiera batean. Alabaina, irribarre lukia zuzendu zidan, asebeteta.

Eskolako ordua amaitu eta berehala etxera itzuli nintzen, egun gogorra izan zen hura. Etxea hutsik zegoen oraindik, amak afaltzeko ordurako bueltatuko zirela erran baitzidan. Nire logelan pilota zahar batekin jolasten nengoen, lehengusu Pedro iritsi zenean, begiak negartsu eta gorrituak zituela.

–Alde egin behar dugu. Bizkor! –esan zidan hatsanka –dena dut prest –jarraitu zuen, eskuetan nuen pilota nire poltsikoan gorde eta niri besotik helduz.

–Zer geratu da? Ama eta aita ere gurekin al datoz? Eta har dezaket ganbaran dudan…

–Ez –ihardetsi zidan, serio –ez dugu denbora galtzeko astirik. Bidean azalduko dizut dena.

Korrika irten ginen etxetik. Ez nekien zer gertatzen zen. Zerbait gertatu al zitzaien aita eta amari? Ez. Ez nuen horretan pentsatu ere egin nahi. Salbu zeuden, seguru. Nire zeregina orain ahalik eta azkarren korrika egitea zen, korrika, korrika eta korrika; besterik ez.

Ibaiaren beste ertzera igaro ginen. Etxe zahar abandonatu bat ikus zitekeen bertatik, eta honen atzean automobil bat, oztin kolorekoa eta nahiko berria zirudiena. Ez nekien Pedrok autoa zuenik, baina giltzak atera eta barrura sartzeko eskatu zidan. Aurrean eseri nintzen, Pedroren alboan, atzeko jesarlekuak janari eta arropaz beteriko kutxa handiek okupatzen zituzten-eta. Eskularru-kaxa ireki zuen, non boneta

handiegi bat, dokumentazioa eta diru-zorroa ikusi nitzakeen. Pedrok ilea estali eta begiak itzalpetzen zituen boneta jarri zuen, autoa martxan jartzen zuen bitartean.

Ekialderantz jo genuen, Zamorarako bidean. Isilean egin genuen bidea. Ni oso izututa nengoen, nahastuta, hitzik gabe; ez nekien zer galdetu. Pedro, aldi berean, akituta zegoen; ez zuen gertatutakoa azaltzeko hitzik aurkitzen, ez ninduen mindu nahi.

Bat-batean, Lazako herria atzean utzi bezain pronto, autoak hots zakar batez abiadura gutxitu zuen. Pedrok burua makurtzeko eskatu zidan. Ezin nuen ezer ikusi, hala ere beste motor baten burrunba bortitza entzun nezakeen. Norbaitekin gurutzatzen genbiltzan. Neure bihotzaren taupadak ere entzuten nituen, gogorregi. Bum-bum, bum-bum.

Burrunba urruntzen entzun nuenean, burua altxatu eta leihotik begiratu nuen: Blindatu eskerga zen. Orlegi kolorekoa eta atzean bandera marradun gorri eta beilegia zeraman, erdian San Joaneko arranoaren armarriarekin.

–Hor barruan doaz zure gurasoak, Eliseo –esan zidan Pedrok mintzoa erlats.

Gaur egun 41 urte ditut. Data: 1975. urteko abenduaren 30a. Francisco Franco hilda dago; baita Francok bere ondorengo izateko asmoz Espainiako Gobernuko presidente izendatutako Luis Carrero Blanco ere. 1940. urtean Frantzian erbesteratu nintzen, lehengusu Pedrorekin batera. Brou izeneko herri txiki honetara heldu eta lau urtera, Pedrok Galiziara itzultzea erabaki zuen, herriminez. Ez dut gehiago haren berririk jaso; ezta nire familiaren berririk ere, Argüelles familia.

Nire aulkitik altxatu naiz eta hartu ditut maletak, idazmahaian esaldi bakarreko agurra utziz. Zazpi hitz:

*“Armak herriari, fatxa madarikatuak ez dira pasatuko”.*

# Anbotoko dama

Leire Aginaga Etxebarria
Igorreko Arratia BHI
Igorre

Neskatila erditu ostean egun oso bat lotan eman zuen emakumearen alaba naiz, loarekiko afektibitatea amarengandik jasota duen hori. Txikitan pistinan burua murgiltzean, begiak ixtearekin batera, marrazo batek oina jango ote zion ikaraz bizi zen hura. Genazko tatuaje bat egin eta lore eder hark eragindako alergia zaintzeko, 15 egunetan hondartzara joan ez zena. Oraindik ere belarriak tolestuta dituela lo egin eta esnatzerako ordua heltzean, elefante hegalari haren antza izango ote duen pentsatuz korrika komuneko ispilura hurbiltzen dena. Komun berberean zegoela amestuz, ohea bustitzen aditua eta beraien ohe erdian sartzearekin batera, gurasoen edozein fantasia errotik desagerrarazteko egina izan zena. Lasterka egitean, eskolako edozeini irabazteko gai zela uste zuen berbera naiz. Solfeoko klasean kantatzean ahots entzunezina uste zuen arren, dutxako akustika ezin hobean sarreran kobratzen hasteko intentzioa duena naiz. Klase-kideen aurrean hitz egin behar zuenean masailak sugarretan sentitzen zituena eta oraindik jendaurrean hitz egiterakoan hitzak bata bestearen gainean pilatzen zaizkiona. Beste era bateko berotasunak lehenbiziko aldiz sentitu zituenean, bere burua esploratzeari ekin ziona. Maitasun erromantikoan inoiz sinetsi ez zuena, eta aldi berean norbaiten maitale izatea desio zuena. Irribarre batek edozein genitalek baino gehiago berotzen zuena. Lehenengo orgasmoak izarrak ikusteraino aztoratu eta argi izpi

sinple baina harrigarri horiexengatik bizia emango lukeen emakume txikia. Sarritan ukabila alutik sartu eta ahotik ateratzeko gogoa izaten duena, feminista erradikal moduko bat. Ingurukoek janzteko orduan kutre xamarra dela uste arren, armairuaren aurrean ordu mordoxka bat igarotzeko gai dena. Anbotoko Damaren izena eramateak izugarrizko morboa emateaz gain, ahalmen berezi bat oinordetzan utzi ziola uste zuena, horixe naiz. Sentimenduetan iraultzak muturreraino eramateko beldurrik gabeko neska.

–Mari! –eguneroko ahots goxoak biografia kurioso honetatik atera nau.

–Banian, banian, utzidan arnas pixka bat hartzen!

–Arnasa nahi dunan beste, baina zortziak eman diten jada.

–Ostia! Ezin naun berriz berandu iritsi!

Oraingoan arropa kutrea nahita jantzi dut eta motxila hartuaz batera atetik irten naiz. Ahots dultze hori nire pisu-kidearena da, Ihintza. Bilbora bizitzen etortzean ezagutu nuen hemengo gau kaotiko batean. Nire bizitzako orgasmorik onenetarikoa eskaini zidala esateko beharra dut, baina ez gara bikote, ez gara ezer, lagun soilak. Biografia bitxian esan bezala, ez dut erromantikotasunean sinesten, baina neska honek sentiarazi zidana kosmoseko indarren baten eragina izan behar zuen, a zer nolako esperientzia.

Autobusera justu-justuan heldu eta alboko burusoilak eskuetan zuen egunkariari erreparatu diot. Betiko kontuak daude azalean, futbol talde sasi-ezagunak, gai bati buruz ezer jakin gabe idazteari ekiten dioten sasi-jakintsuen arti-

kulu mordoxka, baita sasi-horoskopoak ere. Sasiz, arantzaz betetako orri sorta. Ipuinetan protagonista diren emakume bat izatea gustatuko litzaidake oraintxe, sasi guzti horien gainetik eta eguzkia ezkutaketara jolasten dabilen laino triste hauen azpitik ziztu bizian hegan egiteko gai diren horietako bat.

Gaurkoan, gidariak ez du nire iparra zuzenduko, hau da, gaurko bidaiak ez du lekualdaketa kilometrikoa egingo, milimetrikoa zuzenago esateko, eta gidaria ni neu izango naiz. Kilometroak definizio asko ditu bere barnean, beraietatik gogorrena, latzena, familia eta lagunak banatzen dituen hori da. Asteburuero horrelako ehunka egiten adituak eta urrun edo hurbil izan, egongelan ikusi arte, taximetroa geldituko ez dutenak.

Nire ustez, aurreko hau da definiziorik sasitsuena, odoltsuena, arantzatsuena, eta gidari hauei konpetentziarik ez egiteko, gaurko bidaian nire barnerantz abiatuko gara, artzainak Anbotoko Damaren kobara barneratzen ziren bezalaxe.

Barne-barneko sentimenduak kanporatzea zaila izan ohi da edonorentzat. Horiek norberarentzat gordetzea hobe dela erakutsi digutelako. Anbotoko Amaren oinordekoa, horrekin desados dago. Ez nago ados sentipenak gordetzearekin, sentimendu horiek norbaiti bizitza aldatzeko ahalmena izan dezakete, eta aldi berean beste norbaiti bost axola zure barne sentimenduak. Norberaren kitzikapenak lau haizetara oihukatzea gomendatzen duena naiz. Noizbait lotsaren gatibu izateari utzi eta kate astun horiek askatzea desio duen neskatoa naiz. Askatzeari buruz hitz egiten dudan aldiro Ihintza datorkit burura.

Harekin larrua jotzea kitzikapen estimulanteetatik igaroz, gorputzeko azken kirioak dantzan jartzeko modurik atseginena zen. Laztan goxoekin ilargia horren urrun ez zegoela sentiarazten zidan. Azken finean hori nire kabuz lortzen nuen, baina bere azalaren kontaktua sentituz, onartzea zaila izan arren, askoz errazagoa iruditzen zitzaidan. Biluzi soil batzuez osaturiko bikotea ginen, baina gure artean biluziei kolorea ematen ikasi genuen. Eta honek begirada xume bat konbinaziorik konplexuena bihurtzen zuen.

Ostia, kontu hauetaz hizketan hastearekin batera kanpoko munduarekin dudan konexio oro galtzen dut. Oraingo deskonexio honek autobus-geltokian txirrina ez sakatzera eraman nau. Hurrengo geldialdian jaitsi eta oinez egingo dut aurretik dudan bidea.

Bizitza osoan zehar neure buruari galdetu diot ea nire buruan bueltaka dabiltzan gatazkak beste norbaiten barnean aurkituko nituzkeen, edo ea nire milioika galderentzako erantzunak norbaitek emango dizkidan. Honetaz ziur nago, ziur nago beste pertsona askoren barruan hau aurkitzeko gai izango nintzatekeela: zergatik ezin dugu bizitza konplikatu?

Sarritan entzun izan dugu bizitza konplikatu egiten dugulako topikoa, eta ez nago ados, zergatik ez? Neurea da bizi hau, neuk hartzen ditut erabakiak eta ni naiz erabaki horiek hartzera eramaten nauten burutapenen jabea. Gauza bat da bizitza honetan gurea, eta gurea bakarrik dena aurreko hori da, bizitza. Bat bakarra daukagu, eta ezin dugu aukera hau zaborretara bota. Agian bihar esnatzeko ahaleginak egitean ezinezkoa izango zait betazalak banantzea. Horrela izanez gero, ezin izango dut Ihintzaren irribarre lasaitzailea berriz ikusi. Ezin izango diot maite dudala esan, ezin izango diet

barnean dauzkadan tximeleta horiei guztiei irteera bat erakutsi, barruan ustelduko zaizkit.

Burutazio bat izan dut, kursia oso, baina beharrezkoa. Ihintzari bazkaria prestatuko diot. Ez da erromantikoa izango, biotako inor ez delako erromantikoa. Pasionalak gara, ni ehuneko erdia baino gehiago pasioa naiz, soberan dudana berriz alaitasuna eta osti txarraren arteko nahasketa bat. Ez naiz bere portzentajeak esateko gai, hori bere esku utziko dut. Unibertsitatea ezkerretara utzi dut, betidanik izan da hori nire alde ona.

Betiko dendan sartu naiz, eta bere platerik gogokoena egiteko osagaiak hartu ditut, hozkailutik lasaina bat atera eta kutxarantz hurbildu naiz. Eskua zorroan sartu eta bat-batean dirurik gabe nagoela gogoratu naiz. Nik badakit Ihintzari bazkari hori prestatuko diodala, beraz zapatila kutreak ondo lotuta ditudala ikusi eta arineketan irten naiz dendatik. Eskolan esperimentatutako sentsazio hura hanketatik gorantz sentituz, hiri osoko bizkorrena naiz.

Etxera igo naiz, arropa aldatu dut eta lasaina sinple xamarra labean sartu dut. Etxe honek berotasuna igortzen dit, momentu zoriontsu bezain gogoraezinak bizi izan ditut hemen eta ez dut beste inora bizitzen joateko asmorik. Ihintza dutxan zegoen etxeko zerraila ireki dudanean. Berarekin sartzeko tentazioa izan dut, baina planak funtzionatzeko burua argi izan behar dut, eta dutxa horretan ez da posible gauzak argi ikustea.

Ez dakit zer esango diodan, nola, ezta zergatik ere. Bueno, azken horrentzako badaukat erantzun bat. Behar dudalako, lehenago esan bezala sentimenduak adierazi egin behar direlako, bizitza bizi egin behar delako, marrubizko

muxuak eman eta jaso behar direlako eta laztan leunak sentitu egin behar direlako. Horrexegatik zabalduko diot nire bihotza Anbotoko Damaren kobazuloa bailitzan.

Komunetik irteteko aukera hartu duenerako, mahai gainean 2 plater, kandelatxo kutre bat eta lasaina zeuden. Begiratu egin nau eta beste irribarre bat eskainiz leihorantz begira dagoen aulkian jesarri da. Nik irribarrea itzuli diot, berearen antza duela pentsaturik. Lasaina banandu du eta bere begiradarekin hitzekin esan nahi zidana esan dit. Lehenago aipatutako begirada xume horren bariazio bat izan da. Orduan ni hitz totelka hasi naiz.

–Ihintza… ez zekinat nondik hasi… hire irribarrea… hire orgasmoak… izarrak… –irri batek nire kontzentrazio apurra pikutara bidali du.

Aulkitik jaiki da eta niganantz zuzendu da. Gure mahaia ez da oso luzea eta bide horretan nahiz eta 5 segundo baino gehiago eman, eternitatea igaro zait autobuseko geltokia igaro zaidan moduan. Muxu luze batek giharrak lasaitu dizkit, berriz ere izarrak ikusteko predisposizioz. Argi izpi sinple eta harrigarri horiek erakusteko gai delako emakume txiki hau. Ni ere gauza askotarako gai naiz, baina gaurko honetan ez da nire unea, itxuraz nire bizitza bizitzeko planak funtzionatu egin du. Zerbait berria asmatzen duzunean probatu egin behar duzun moduan probatu dut nik Ihintza, gustu askoz eta are maitasun gehiagoz. Pasioa areagotuz eta biluzi bakoitzari kolore desberdin bat eskainiz.

Denbora igaro da nire hitzak esan dizkiodanetik, lo gaude. Egia esan lo dago, hemen nire ondoan, izaren berotasunean. Esku bat nire bizkarrean sumatzen dut eta bestea-

rekin gerria estutzen dit. Horrelako konpainian lo hartzea uste baino errazagoa izaten da.

Esnatutakoan Ihintza ez dago nire ondoan, eta jertse bat hartzeko bere armairua zabalduta ez ditut bere gauzak ikusi. Segituan ohartu naiz gertatzen ari zenaz. Armairuko ateak itxi ditut. Anbotoko Damak izakiak asko maitatu arren, ez da horiekin konprometitzeko gai, eta Ihintzak oraingoan nire rola hartu du, izena aldatu dugu une batez. Hemen bukatu da nire gaurko bidaia, iparra galduta bukatu dudan arren, badakit ekialdea aurkitzeko gai naizela.

# Homo hominis lupus

Ainhoa Gojenola Urrutia
Lekeitio BHI
Lekeitio

Ekialdeko haizeak gogor astintzen du aspaldian. Sekula baino gogorrago. Jendearen noranzkoa kontrolatzen ari dela esatera ere ausartuko nintzateke. Kanpora ez irteteko agindua eman duela Eurusek. Eta jendeak jaramon.

Alienazioaren soka noraino heltzen den jakiteak, hala ere, ez nau harritzen. Urteak baitira jada jainko-jainkosen menpe bizi garenetik. Jainko-jainkosen txotxongilo bihurtu ginenetik.

"Bultzatu". Ez dut ulertzen karteltxo honen zergatia. Nor da ateak irekitzeko ere laguntza behar duen hori? Nerbioak sutan jartzen dizkidate inozoentzat eginiko indikaziook. Pare bat aldiz eskatu diot kafetegiko enkargatuari ken dezan, baina alferrik. Hala ere, momentuz, jasan dezaket umilazioa. Zer erremedio, beste kafetegi dezente bat aurkitu bitartean.

Eurusi ihesean ari naizen honetan ere Mike Oldfield-en ahotsak agurtu nau. Giroak berokia kentzeko gonbita bota eta nik jaramon egin diot leihoaren alboan dagoen mahaira hurbildu bitartean. Gaurkoan ere mahai baino aulki gehiago daude hartuta. Ni neu bakarrik esertzera ausartzen den bakarra. Honek lasaitu egiten nau urduri jarri beharrean.

Ez nau bakardadeak beldurtzen. Zergatik beldurtu beharko ninduke bada? Ez dut ulertzen jendearen preokupazioa. Bakardadeak beldurtu? Ergelak dira guztiak. Ez dago beste azalpenik. Egia esan, ezin dut konprenitu nolatan galtzen dudan hainbeste denbora gainontzekoen ideia txatxu hauek ulertu nahian. Idazteari denbora hau guztia dedikatu izan banio dagoeneko idatziak nituzke Ken Follett-ek adina entziklopedia. Idazteari ekin beharko nioke. Ordenagailuaren pantaila ere aspertu da dagoeneko itxaroteaz.

–Aizu! Aizu! Entzuten al didazu?

Bakardadearen gaiari ekitea ez litzateke hain ideia txarra. Bakardadearen klixe delakoez. “Homo homini lupus” titulua jar niezaioke. Gaiari ederto datorkiola iruditzen zait.

–Aizu! Erantzungo al didazu, mesedez? Zer nahi duzun galdetzen ari naiz.

Niri hizketan ari ote da? Begirada altxatu beharko nuke? Entzungailuak kentzera behartuko al nau? Ezin dezake imajina zer nolako sakrilegioa egiten ari den Igor Stravinsky-ren maisu-lana etetean. Gero esan dezatela antisozial hutsa naizela.

–Zerbait esan al didazu?

–Bai, ea zer nahi duzun.

–Kafesnea. Oso beroa, –zehaztu beharko nuke agian – baina ez mingaina erretzeko adina. Eta hiru azukre koxkor.

–Beste ezer?

–Ez, eskerrik asko. –Nolatan nahi izango nuke beste ezer? Kafesnea bera bakarrik hartzen da. Ezin daiteke bes-

tela dastatu. Fundamentu apur bat baldin badaukazu ez behintzat.

Inguruko iskanbila desatsegina da guztiz. Gehiegi luzatzen ari naiz ene belarriak berriz ere "Udaberriaren sagaratzea"-z deleitatzeko. Igor Stravinsky. Hura bai maisua. Antisozial eta egozentriko hutsa zela diote. Ongi zekien bai zer zen garrantzitsua eta zer ez. Artista handia. Bere barreneko anabasaren zoragarria. Ulergarria iruditzen zait askok gogor kritikatu izana. Jendeak ez baitaki benetako maisu-lanez gozatzen.

Hemen da berriz ere zerbitzaria ene pentsamenduak eteteko prest. Kafesnearen usainagatik ez balitz berriz ere hasia zen niri garrasika. Katilua bero dagoela onartu beharra daukat. Beroegi agian. Ez naiz fio aspaldian kafetegietan lan egiten duten zerbitzariez. Seguru mingaina erreko zaidala. Hala ere, ez daukat probatu beste ezer egiterik egia ezagutzeko.

Schrödingerren katuaren esperimentuan bezalaxe. Lehen zurrutada eman diot kafesneari. Harrigarria iruditzen bazait ere, ez zait mingaina erre. Goxoki musukatu nauela dirudi. Zerbait falta da ordea. Non daude hiru azukre koxkorrak? Zerbitzaria niri begira dagoela senti dezaket. Hiru azukre koxkorrak gogor eusten ari den platertxo batean diraute. Zeri itxaroten ari ote da?

–Oraingoan zer nahi duzu? Azukre koxkorrak emango al dizkidazu ala erregutu egin beharko dut?

–Ez dizut ezer emango zauden urruneko mundu horretara zer demontrek eramaten zaituen jakin arte. –Benetan dioela dirudi.

–“Udaberriaren sagaratzea” da errudun. Ez duzu ezagutuko, baina musikari errusiar batek…

–Igor Stravinsky maisuak konposatu zuela esan nahi zenuen?

Ergel aurpegia jarri dudala uste dut. Zerbitzari hau ez da uste nuen bezain inkonpetentea. Lehenengo, kafesnearen tenperatura ideala, gero, Stravinsky ezagutzen duela…, eta gainera hiru azukre koxkorrak aparteko plater batean dakartza. Niri gustatzen zaidan moduan. Harriturik nagoela adierazi behar dut.

Denbora luzez geratu da hizketan. Stravinsky-ren maisutasunaz. Bere lanek barrenean sortzen duten egonezinaz eta jendeak horretaz gozatzeko duen gaitasun ezaz. Begiek dir-dir egiten diote hitz egin ahala. Pasioz beterik egiten du hitz. Berak senti dezakeen bera sentitzen dudala jakingo balu bezala. Hala ere, ez daukat denbora gehiago galtzerik. Kontua ekartzeko eskatu diot.

–Gaurkoan neure kontu.

Hala ere, paper bat hartu eta bertan zerbait idazten hasi da. Zer idatz dezakeen galdetu diot neure buruari. Luze itxaron beharrik gabe letra delikatuz idatziriko zenbaki bat luzatu dit. Gabrielle du izena.

–Nahi duzunean dei iezadazu.

Deitzeko esperantzarik ez baldin badut ere, papera praketako poltsikoan gorde dut. Zer uste du? Zerbitzari xume batekin denbora galtzeko astia dudala? Nahikoa denbora galduarazi ez didala jada? Ordenagailua besapean hartu eta

hirugarren azukre koxkorra mastekatuaz kafetegitik irteteko keinua egin dut. Hala ere, ez zait polita iruditu nire izena esan gabe joatea.

-Igor. Nik Igor dut izena.

Eta jendeak antisoziala naizela dio.

# (Ez)ezagunak

Maria Cascon Urizar
Amorebieta-Etxanoko Lauaxeta Ikastola
Euba

Erlojuak bere olerki amaiezina xuxurlatzen dio belarrira. Tik-tak. Bizitza berandu dator, beste behin, eta bera geltokian dago behatz mamiak eta sudurra izoztear dituelarik. Azken aldian marmolezko eskultura baten antza hartu du. Zurbila, mutua, hotza. Hala ere, ez nau harritzen, urtaroekin batera aldatzeko ahalmena duelako eta udaberrian irribarrerik politena oparitzen didan bezala, udazkenean kafetegi arrotzetako usain, doinu eta istorioak ekartzen ditu bere praka odolestuen zimurretan.

Nik Eki deitzen diot, "deitu" edo. Eki, Ekilore. Loreak bezala, eguzkiaren izpiak geltokiko leihoetatik sartzean, lepoa atzerantz bota eta begirada teilapeko sabaia osotzen duten adreiluetara zuzentzen duelako. Badirudi argia hartu eta bihotzaren ondoan gordetzen duela.

Bizitza osoa emango nuke eszena hura begiratzen. Itzalak eta bere mototsetik ihes egiten duten ileek airean egiten dituzten irudiekin amesten. Bizitza osoa bere oinetakoek zoruan egiten duten musika entzuten. Bizitza osoa andenetan zehar egiten duen eguneroko ibilbidea miratzen. Pariserako norabidea duten trenen andenean hasi eta aldiriko treneko andenean amaitzen dena, beti. Bizitza osoa, beiraren atzean, irakurtzen dituen liburuen istorioak asmatzen. Bizitza osoa bi metro karratuko kutxan joan-eto-

rriko txartelak saltzen. Bizitza osoa bere Pariserako tiketa gordetzen.

Bizitza osoa…

Itxaroten.

06:30. Geltokiko kafetegira abiatzen naiz, kafe hutsa eskatu eta bibotedun zerbitzariarekin gaur egiten duen haizeaz bizpahiru hitz partekatu ondoren, nire lokalera bueltatzen naiz. Txikia da nire kabina eta hormak munduko postalez beteta daudenez, txikiagoa dirudi. Sakonki arnasten dut, postalak eta kafe usaina. Itsasoaren bitsa zuriak ilea zipriztindu dit dagoeneko eta airea dantzan dabilenean, gaur bezala, olatuen antza hartzen du. Ozeano osoa korapilatuta dut ile xerloen artean. Baleak, marinelak, ekaitzak eta lanbroak gora eta behera jarduten dira belarritik bekokira. Enbata zuria motots batean lotzen dut eta kabinaren beirak sortzen duen isla ilunean nire hazpegiak miatzen ditut. Azal argia, ia gardena. Ezpain gorrixkak, mehe eta maiztuak. Denboraren zimurrak handik hona; irri, negar, oihu eta bizipenen mapa irakurtezina osotuz. Kadiran eseri, artilezko jertse urdina erantzi eta marradun blusa patxadaz jartzen dut. Gero postaletan galtzen naiz, arrotzak diren paisaien irudiak miratzen. Galtzen naiz, aulkian jesarrita nagoelarik. Galtzen naiz, galdu barik. Sustrai sendoak hazi zaizkit jada eta ez ditut inoiz ezagutuko Chefchaoueneko karrika urdinak, ez Amsterdameko udaberria, ez Pariseko pintura eta artistak, ez Saharako izar koloretsuak, ez Zeilango usain eta sentsazioak… Ez, ez ditut inoiz ezagutuko. Sakonki arnasten dut berriro, postalei esker munduan nago.

07:00. Ahots mekanizatu eta hotz batek trenen noranzkoa eta ordua xuxurlatzen du. Ondoren lehen bidaiariak

datoz, grisak. Urteekin ezizenak jarri dizkiet geltokiko bisitariei. Grisak, presaka, eguneko lehen trena hartzen duten emakume eta gizon trajedunak. Inoiz ikusi ez nautenak. Bada, ez nau harritzen, orain billeteak aurretiaz hartzen dira eta soilik txartela galdu dutenek bilatzen naute.

08:13. Urrunetik norbait txistu-joka datorrela entzun eta irribarre egiten dut. Eki da. Gaur, ahapeka, "bihotza sutan duzunean kea begietan sartzen zaizu" kantatzen du. Eta nire parera heltzean, biratu eta irribarre goxoa eskaintzen dit. Egunero bezala, Pariserako trenen andenera abiatu eta minutu luzez han gelditzen da, sabaira begira. Gorri amaranto koloreko soinekoa eta urteak dituen anteko jaka daramatza jantzita, bere boten kordelak solte daude eta zelaietako belar luzeak bezala mugitzen dira, pauso bat ematen duen bakoitzean. Ameslari, poeta, margolari, musikari eta artisten begirada du Ekik. Argian berdeak eta iluntasunean marroiak diren bere begiekin topo eginez gero, begiradari eusteko edo ihes egiteko beharra sortzen zaizu. Horrelakoa da Eki, berezia.

8:47. Aldian-aldiko trena heltzeko hiru minutu falta direlarik, jendetza gehiago dago geltokian. Eki andenetik andenera doa, goizeko trabesia burutuz. Halakoan, haize bolada batek gogor astintzen ditu geltokiaren zirrikituak eta bertan dauden ibiltariak. Paper asko haien jabeen eskuak agurtu eta hegan hasi dira zortzietako airean barrena, hegan hasi eta hegaz joan dira ahaztutako oroitzapenekin batera. Eskena polita da, desastre polita. Askotan anabasan aurkitzen dut edertasuna. Anabasan. Ez marra, ez konposizio itxi eta perfektuetan. Hodeietan, margolarien arropen orbanetan, betile errebesetan, laztan traketsetan; bertan. Ederrak dira horiek guztiak, ederrak askotan kontuan izaten ez ditugun xehetasunak. Ederrak, eskuetatik, bistatik... erraz egiten dutelako ihes.

8:49. Norbaitek beirari kolpetxoak ematen dizkio nire arreta deitzeko asmoarekin.

–Barkatu, aldiriko trenerako txartelik, mesedez? Haizeak txartela lapurtu dit eta trena hartu behar dut.

–Eki… –esaten dut hortz artean, eskuek, ahotsak eta astelehenak dar-dar egiten didaten bitartean. –Ba... bai, noski.

Orduan, biratu eta lepoa ematen diot gordeta nuen tiketa hartzeko. Nire atzean bere arnas artegatua nabaritzen dut eta hartutako tiketean ekilore bat marrazten dut arin batean. Ondoren, nire irribarrerik politena inprobisatu eta beirako zulotik billetea ematen diot, gure eskuek topo egiten duten bitartean. Diru zorroa ateratzeko keinua egiten du baina azkar joateko esaten diot, 8:50eko trena irteteko zorian dago eta.

–Bihar hemen jarraituko dut! –esaten dut eztiki.

–Eskerrik asko trenen dama, bihar ordainduko dizut. – Oihukatzen du andenera korrika abiatzen den bitartean.

Jende artean desagertu ondoren hurrengo kanta datorkit burura:

“Hegoak ebaki banizkio
nerea izango zen,
ez zuen aldegingo.
Bainan honela
ez zen gehiago txoria izango eta nik...
txoria nuen maite”.

Eta nik… Ekilore bat nuen maite, sustrai nomadak zituena eta orain Pariseko Gare du Nord geltokian edonora eta inora joateko tren baten zain egongo dena.

Lokalak gero eta txikiagoa dirudi. Astero, Frantziatik, ekilore baten marrazkiarekin sinatutako postalak heltzen direlako.

…

*Trenen dama,*

*Pariserako bidean, 1995eko azaroa*

*Oso ondo gogoratzen dut ezagutu zintudan eguna. Zure kabina txikian zeunden izenik ez zuen okre koloreko liburu batean murgilduta. Aurrez aurre jarri nintzen eta zure mugimenduak behatu nituen. Orriak eztiki ferekatzen zenituen eta ezkerreko eskuaz kolpetxoak ematen zenizkion beira atzean zegoen mahai txikiari. Zure atzean hamaika postal ezberdin zeuden. Pelikula bat zirudien, eta ni eszena horrekin liluratuta nengoen. Denbora aurrera zihoan, orriak aurrera, eguaztenak aurrera, bizitzak aurrera eta zuk zure horretan jarraitzen zenuen, irakurtzen. Orduan pentsatu nuen zeu zinela benetako geltokia, ez errailez jositako eraikuntza hotz hura. Zu, tren guztien helmuga. Bai, ziur nengoen, ziur nago.*

*Trenetik idazten dizut eta galderak tupustean agertu dira zalantzaren atarian. Zergatik eman zenidan orain nire ondasun garrantzitsuena den Pariserako tiketa? Zergatik ekilore bat? Zergatik...*

*Maite zaitut. Ez zaitut ezagutzen, eta maite zaitut,*
*“Eki”.*

# PROSA B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Maitasuna, sua

Aratz Fernández de Pinedo
Gasteizko Armentia Ikastola
Vitoria-Gasteiz

Esperoan nago, eguzki amandrea mendien artean ezkutatu eta horrela urteko egun luzeena bukatu dadin. Egun luzeenarekin batera gau motzena, noski. Inoiz ikusi gabeko gaua ezagutuko dut, iluna bezain distiratsua, gau magikoa. Nahiz eta laburra izan, seguru nago mamitsua izango dela, ogia bera bezain zaharra baina egunean eguneko ogia bezain berria. Sinetsi ezinik nabil hemen bukatu izana. Argi dago maitasunak nahi duen lekura eraman zaitzakeela… Arren, Jaungoikoa, barka ezazu ene bihotzak bekatura eraman izana. Hori, ordea, ez dago nire esku. Ene begiek hura ikustearekin soilik gerra pizten dute ene bihotzean eta tximistak lurra jotzen duen abiaduran gorputz guztia gerrarien tiro eta ezpata hotsek menperatzen didate. Denak erritmo berean: Pum-pum, pum-pum…

Ene senarra Juan Oxurikoa ikustearekin, berriz, barruak nahastu eta guztiz kontrakoa gertatzen zait. Herriko jauntxoa ez ezik munduko jaun eta jabe dela ere uste du eta, hau gutxi balitz, batzuetan jendea erretzen ikustearekin disfrutatzen duela ematen du. Azken batean, sorgina dela leporatzen dio sudur puntatik ateratzen zaionari. Gogoan dut matrimonioa eskatu zidanekoa. Ene familiaren lurrak zirela eta egin zidan eskakizuna. Nik, ordea, argi nuen ez nengoela horrelako pertsona zital baten agindupean bizitzeko prest. Hala bada, ezezkoa eman nion. Espero nuen bezala, egun gutxira etorri zitzaidan mehatxuka:

–Zure erabakiari buruzko zurrumurruak entzunda, erantzun argi baten bila natorkizu. Nirekin ezkonduz gero, ez zaizu bizi guztian jan eta edatekorik falta izango eta noblea izateak berekin dakartzan luxuez gozatuko duzu. Ezezkoa ematen badidazu, ordea, argi utziko didazu eraba-

kia deabruaren agindupean hartu duzula eta, beraz, sorgin arlote bat besterik ez zarela *agerian utziko duzu*. Hori gertatuz gero, beti ere Jainkoaren izenean, zure gorputza erre eta arima demonioaren jabetzatik askatzeko betebeharra beteko dut.

Banekien ez zuela halako astakeriarik frogatzerik. Baina aldi berean kontziente nintzen eliza eta, beraz, legea bere alde izango zituela eta mirari bat gertatu ezean sutan bukatuko nuela.

Hori da ene istorio negargarria, dorretxe madarikatu honetan preso gelditu izana alegia. Jaungoikoari eskerrak, ordea, ene bizitzako amodioa aurkitu dut bertan. Hona iritsi nintzenerako morroitzat zuen Juanek. Gau ilun bateko iskanbilaren harira ezagutu genuen elkar. Jauntxoak agindutakoari uko egin eta inongo lotsarik gabe latigoaz jo ninduen bere barrenak hustu arte. Bera izan zen urak baretu arte itxaron eta kontu handiarekin zauriak sendatu zizkidana. Basoan ahamenda jaso eta amonak erakutsi zion ukendu bat egin zuen, ene senarrak kuidadorik gabe egindako zauriak ezabatzeko. Handik aurrera hasi ginen gure harremana estutzen eta poliki-poliki bata besteaz maitemintzen. Gure hartu-emanak, ordea, oztopo handiak dauzka. Edozein aldetatik begiratuta ere bekatua da gure artekoa. Debekatuta dago, senarra dudalako, kristautasunaren aurka doalako, belar biltzailea besterik ez delako eta batez ere biak emakumeak garelako. Bere jaioterritik erbesteratu eta gurean aurkitu zuen babesa, neskame lanak egiten. Ez ditu gure sustraiak moztu eta arbasoen ohitura zaharrak galdu nahi, eta horregatik uko egiten dio Jaungoikoari eta eliza katolikoari. Marimunduko omen da bere Jainkosa, eta lurra, basoa, bere eliza. Errekako lamiak, galtzagorri bihurriak eta Tartalo bera ere aurkitu omen ditu basoan noiz

edo noiz. Berak adoretu nau gau batez jainkoari bizkarra eman eta Ama Lurrarekin harremanetan jarri eta eguzki berria omentzera.

Leihotik begiratu dut. Dagoeneko ezkutatu zaigu mendien artean eguzki amandrea. Gaueko erreginaren argiak emeki-emeki argiztatzen ditu orain inguruko basoak, bere dir-dir ahul eta misteriotsuarekin. Iritsi da ordua, libre izateko, maitatzeko ordua. Erruki nitaz Jaungoikoa eta ene borondate onarengatik bihurtu ezazu bekatua bertute.

Jauntxoa ez esnatzeko kontu handiarekin atera naiz etxetik. Harrapatzen banau, nireak egin du… Ate trinkoa kontu handiz ireki eta kalera atera naiz. Gainerako etxeak lizar adaxkaz apainduak daude, eguzki berriak etxe horretan bizi direnak bedeinka eta babes ditzan. Gurean, ordea, ez dago halako sinesmenen arrastorik, Juanen ustean sorginkeria baitira. Herriko kalean ez da esna dagoen arimarik eta honek izugarrizko isiltasuna eta tentsioa sortzen du. Kale estuetatik at dauden gari soro zabalak zeharkatzen ari naizela, Ortzi jaunari, zeruari begiratu eta liluratuta geratu naiz haren edertasunagatik. Ilargi amandrea inoiz baino beteago etorri zaigu eta berarekin batera, nola ez, zerua argiztatzen duten izarrak. Bat, hamar, ehun… Zenbat izar ote daude? Asko, pila bat, gehiegi. Ene maitasuna bezala.

Iritsi naiz, eta dagoeneko zain daukat Joana. Argi gutxi dago, baina aski zait bere itzala zein ederra den ikusteko. Modu batean edo bestean, beti ikusi dut modu aldrebesean lotutako oihal zahar batekin burua estalita. Gaur, ordea, ehunki zaharra etxean utzi eta, bizitasun handiko ile gorria aldakaraino jaisten zaio ur-jauziko ura bezala.

–Etorri haiz… –hasi zait bere ahots eztiarekin.

–Etortzeko zalantzan egon naun baina emandako hitza betetzea erabaki dinat –erantzun diot.

–Ez haiz damutuko. Gora iritsi aurretik, bide luzea dinagu egiteko. Beraz, hobe dinagu lehenbailehen mendian gora igotzea –erran dit.

Jarraian, eskutik hartu nau eta iluntasunean barrena murgildu gara. Ontzak bezala ikusten du gaueko basoan. Ni, ordea, ez naiz bere itzal kurbatutik haratago ikusteko gai. Hala noa ontzak ehizatzen duen arratoia bezalaxe, noraezean, lehenago ala beranduago iritsiko garen esperantzarekin.

Bat-batean gelditu egin gara eta zeri begiratu ere jakin gabe horrela galdetu diot:

–Zergatik gelditu gara? –makurtu egin dela ikusi dut. –Zer dago, bada? Zertarako makurtu haiz?

–Gero ikusiko dun, ez dun garrantzitsua.

Berriro ere galdera errepikatzera nindoan, halako batean urrutiko danbor-doinuek belarriak zeharkatu eta gorputzeko ileak puntan jarri dizkidan arte. Nork jotzen ditu danborrak? Zergatik? Ene buruak ia inkontzienteki galderak sortzen ditu, bata bestearen atzetik, nire jakin-mina ase nahian.

–Larrean zeuden dagoeneko –pentsatu du ozenki belar-biltzaileak.

–Nortzuk, ordea? –Bota du ene ahoak konturatu gabe.

–Inguruko bailara eta herrietakoak ditun eta gurekin batera gure Jainkosa gurtzera zatozen.

Ene erantzunari itxaron gabe eskuetatik hartu eta mendian gora hasi da berriz. Bidean gero eta gorago goazen heinean, danborren hotsa areagotu egiten da. Asko ibili eta gero argi distiratsu bat ikusten hasi naiz. Argi handi horren inguruan beste argi txiki batzuk daude denak haren inguruan bueltaka.

Azkenean, baso itxitik atera eta mendiz inguratutako larre batera heldu gara, Juntxazpira hain zuzen ere. Benetan liluragarria da ene begien parean dudana. Izar distiratsuen babespean eta belar freskoaren gainean jende asko pilatzen da. Zaharrak zein gazteak, gizonezkoak zein emakumezkoak. Inguruko herritar guztiak etorri direla ematen du. Denak suaren inguruan, bakoitza bere horretan.

Suari beldurra baliote bezala, distantzia zaindu batera daude garai batean gazte izandako atsoak eta irribarre zabal batez begiratzen diete belaunaldi berrietako dantzariei. Hauek, berriz, deabruak gorputza hartu balie bezala dantzatzen dute, gorputza askatasunez eta erritmoz mugituz. Denak oinutsik daude eta bada erdi biluzik dagoenik ere. Guztiak daude era berean, jaun-andre batzuek danborra astintzean sortzen duten erritmoari jarraituz. Su indartsutik at, belaunen azpitik arnasestuka dabilen su gixajo bat dago. Gar ahulen gainean eltze bat jarri eta salda edo edaberen bat prestatzen dihardute andre batzuek. Hauen ondoan, haurrek ezinegonez inguratzen dituzten kaiola txiki batzuk daude, tamaina kontuan hartuta, apoak edo arratoiak barruan dituztelarik. Larrea inguratzen duen basotik gu bezala datorren jendea ateratzen da etengabe eta gero festan murgiltzen dira.

–Ba al hator? –Iradoki dit ene maiteak.

–Noski –erantzun diot –Ni, ordea, ez naun ene gorputza haiek bezala mugitzeko gai.

–Lasai egon hadi, musikaren doinua jarraitzea besterik ez dun. Nik lagunduko dinat.

–Esan eta egin. Suaren ingurura gerturatu, ene eskuak bere gerrian pausatu eta gerria mugitzen hasi da. Bere mugimendu erotikoek gorputzaren tentsioa ahaztu eta inoiz ez bezala dantzatzera animatu naute. Gaur beste begi batzuekin begiratzen diot zoriona ekarri didan emakumeari.

Denbora luzea dantzan eman eta gero, suaren ingurutik aldendu gara. Bata bestearen ondoan etzanda gaude ilargi amandreari begira. Minutu batzuk isilik egon eta gero basoan makurtu denekoa burura etorri zait.

–Mendian gora gindoazela gelditu eta zerbait jasotzera makurtu haiz…

–Kuletoak zitunan –moztu nau –Mariren opariak ditun, hauek janez gero paradisura joango gaitun. Nahi al dun probatu?

–Ondo da, ez zaukanat ezer galtzeko –esan diot.

Segidan, eskuak gonako poltsikoan murgildu eta perretxiko eskukada bat atera du. Kolore gorri bizikoak dira eta zipriztin zuriak dituzte. Bakoitzak bana irentsi eta istant batez hitz egiten egon eta gero, Joana eltzearen inguruan dauden andreengana joan eta poltsikoa hustu du, barruan zuen guztia eltzera botaz. Handik gutxira, oihuka hasi dira emakumezkoak, larrean dauden guztiak prestatutako salda edatera gonbidatuz. Jendeak edabea nola hartzen duen ikus-

ten ari naizela, gorputza gero eta beroago dut eta izerdi patsetan jarri naiz segituan. Joana nireganantz hurbildu da, bere kurba perfektuak pauso bakoitzean astinduz. Izerditan blai ikusi nauenean, kankana batean aurpegira barre egin dit.

–Zer gertatzen da? –esan diot, nolabaiteko zailtasunarekin.

–Kar, kar, kar… Jandakoa efektua egiten ari zain –Jakinarazi dit.

Orduan, nire gainean etzan eta lepoa miazkatzen hasi zait, poliki-poliki bere mingainak ene ahoa aurkitu eta bion mihiak korapilatu diren arte. Horretan ari ginela, nire gainetik kendu, arropak erantzi eta nire ezusterako suaren ingurura joan da txintik esan gabe. Probokazio hutsa izan da, seguruenik, ni bakarrik utzi eta gorputza astintzen hastea. Ni ere altxatu eta larru gorritan jarri bezain laster *(izugarrizko beroa dut eta)* suaren ingurura hurbildu naiz. Gorputza mugitzen hasi orduko, oreka-falta sumatu eta zutik mantentzeko gai ez naizela ikusita, Joanaren kontra jarri eta haren erritmoan dantza egin dut. Biok bat bagina bezala gaude. Biluzik. Izarren babespean. Lurraren indarraz eta suaren epeltasunean aske. Ama Lurrak bizia eman zidan eta orain, Joanak, zoriona. Maitasunak libre egin nau, zoriontsu izateko libre.

Gar bizien inguruan giro eztia sortu da, gozamenerako eta eromenerako giro ezin hobea. Gorputzaren kontzientzia emeki-emeki galduz noa, eguzki berriarekin batera begiak itxi eta ametsetan murgilduz.

*****

Begiak ireki eta ene betiko ohean nagoela ikusi dut. Leihoak itxita daude eta argi-hari fin bat besterik ez da logelan sartzen. Jaiki eta janzten ari naizela, loaldiko ametsak etorri zaizkit ate joka. Logelaraino bertaraino Marimunduko sartu eta horrela esaten zidala gogoratu dut orduan:

–Nolako egurra, halako sua. Egurrik gabe surik ez.

Ez dut txintik ulertzen. Zer esan nahian dabilkit Marimunduko?

Atzoko gaua ez dut argitasunez gogoratzen. Momentuaren edertasunaz oroitzen naiz, eta baita zoriona eta plazeraren gozokiak dastatu izanaz ere. Hala ere, ez naiz hemen nola bukatu dudan edo ene maitea non dagoen azaltzeko gai. Pentsatzen dudan bitartean, leihoko ateak ireki eta indarrez sartu dira izpiak, aitaren batean espazio guztia argiztatuz. Bertatik begiratu dut. Egun atsegina dago eta eguzkiari erreparatuta eguerdia izango da seguruenik. Urrunean kea ikusten da eta edozeinek daki kea den tokian sua dagoela. Bart gauekoak gogoratzeko aitzakiarekin ingurura hurbilduko naiz, zer gertatzen den ikustera.

Urrutitik bospasei lagun ikusten ditut, denak suari begira. Hurbiltzen noan heinean aurpegiak identifikatzen hasi naiz. Beste askoren artean, ene senarra eta herriko apaiza daude. Iritsi naizenean, horrela esan dit Oxuriko jauntxoak:

–Magdalena, gaur gauean deabruak ziria sartu dizu.

–Zer diozu baina? –Oihukatu dut, burutik pasa zaidan lehena jaurtiz. Pentsatu ere ez dut egin nahi erretzen ari direna, zera… –Jo… Jo… Joana!

–Neskameak aitortu digunez, atzo gauean aker beltzarekin itzartu eta sorginkerietan ibili zen gaueko ordu txikietan. Zu sorgintzeaz gain, iseka egin dio kristautasunari.

–Isil zaitez, ni ez naiz sorgindua izan! –Garrasi egin dut, begiak dir-dir nituela. –Gezurtia! Zu zara hemengo deabru bakarra!

–Traidore bat besterik ez zen. Bizitzerik merezi ez zuen gizajo bat. –Leporatu du apaizak. –Beharrezkoa zen haren arima garbitzea…

Joanak zoriona, bizipoza eman zidan. Orain neure buruari galdegiten diot: Zertarako nahi dut bizia, zoriontsu izan gabe? Bart gauean bizitzaren zapore gozoena probatu dut, suaren eskutik. Egurrik gabe sua itzaltzen da, maitasunik gabe zoriona galtzen den moduan. Sua erregai gabe geratu da orain. Ez dut, ordea, sua itzaltzen utziko. Azken batean, nahiago dut suak behar duena izan, bizirik mantentzen den bitartean. Azken finean, maitasuna, sua.

# Hiru aurpegiko txanpona

Lore Txakartegi Alvarez
Ondarroa BHI
Ondarroa

Jule ortozik zebilen tapizaren gainetik. Logelako panpina guztiak banan-banan lurrean jesartzen zituen alfonbraren bilo gozoek oinazpietan kili-kili egiten zioten bitartean. Leihotik zetorren ostargiak argi distiratsuz hornitzen zuen lotegia, eta egunsenti hartako haize leunak udaberria hurbil zegoela nabarmentzen zuen.

Lau panpina zituen, baina te-festa haietan bakarrik hiruk hartzen zuten parte: Izebak, amak eta aitak. Ahizpa oso txikia zen nagusien elkarrizketak entzuteko, horregatik ez zen korruan esertzen beraiekin. Izar berezia zen, bereziki gorrotagarria.

Nahiz eta lau panpinen arteko te-festa batek tentela eman, oso korapilatsu eta zaila da rol apurtuen joko izoztua. Batez ere Abraxas-en esku-barnean galduta zabiltzanean.

Hiru edalontzi kokatu zituen lurrean, panpinentzat ziren. Denboraldi luze bat zeramaten jolastu gabe, eta seguru aski egarri izango ziren.

Tea poliki sakontzen zen lehen kikararen barne. Soinu leun eta malgua, dotorea eta zolia. Musika zirudien. Izeba zirudien. Bera zen lehena.

Panpina isilik zegoen. Tea edalontzira poliki isurtzen zela ikusten zuen bitartean bere sentipenetan dantzan zebilen, ispilu hautsiaren kristalezko labanak saihesten, tango korapilatsu baten menpe, abestia bukatu zain. Makillajea atearen bestaldean eta giltza eskuan. Sartuz gero bueltan ez zuen aterik aurkituko, baina bertan geratzen bazen ispiluak sastakatuko zion ezpainetan.

Takoiak, soineko panpoxoak, ile horia. Zimurrak. Paralelo kokatutako arkatz zorroztuen artean zorrotzena, garaiena, ederrena. Hauskorrena. Ez da zaila zoriontsu den norbaiti bihotza apurtzea, baina zer da zoriontasuna dena esku-ahurrean izan duen norbaitentzat? Igurikimen menderaezinak neskato garaiezinarentzat.

Klixe bat zen, klixe atsegin bat, edertasuna dariola itsusi ikusten zena. Ispiluan islatzen ez zen arima bakartia. Piropo lizun eta muxu latzak estimatzen aditua, eta lurrin pozoitsuak soinean eramaten trebea.

Artegatasun osoz bizitzen zituen gauak, bere Unibertsoan bizi ziren izar distiratsuen arimak oso ahulak baitziren. Bere gauetan izar guztiak ziren iheskorrak. Ilargi argitsuak igortzen zuen lasaitasun epel eta beroaz aldendu egin behar izaten zen bere bunkerrean ezkutaturik egunabarra heltzeko orduak zenbatuz. Gauak joan eta gauak etorri. Errutina amaiezin batean bizi zen printze urdin baten zain, bere burua pasabide amaiezinean txuriz jantzita irudikatuz.

Ez zen isurkaririk geratzen kikaran, izebaren aldia ate aurrean geratu zen pentsakor. Errutinari eskutik helduta.

Julek izebaren eskuetara begiratu zuen. Dardarka zebilen. Jolasten ziren bakoitzean bere buru gainean josita zara-

man laino beltzak ekaitz gogor eta tximista indartsuen menpe jartzen zuen emakumea. Bere buruan bizi ziren mamuen besoetan.

Izebak ez zuen gogoko joko hura. Ezta Juleren aitak eta amak ere. Buruhauste haiek neskatxaren gurariak ziren. Honen begiek ez zuten sekreturik ezkutatzen, bere burua hutsik zegoen, eta bizirik zeraman hamar urteetan zehar ez zuen amets gaiztorik ezagutu.

Ahaltsu sentitzen zen ingurukoen egunerokotasun lasaian sufrimendua zegoela egiaztatzen zuenean. Arrunten ardurak eta kezkak ezagutzeko panpinen bitartez beraien iluntasunean murgiltzen zen. Baina bera ez zen horrelakoa. Gau beltzenetan buruko minik ez izateak berezia egiten zion. Baina ez Izar bezain berezia.

Aitaren kikara Juleren bihotza bezain hutsik zegoen. Berak ez zuen edaten eta alabarentzat erraza izan zen zergatiari burukoa kentzea.

Etxean ez zegoen aitaren gaztetako argazkirik. Bere nerabezaroa atzean utzi zuen egunean erabaki baitzuen dena aldatu egin behar zela. Nahiz eta urte haietako irudiak bakarrik damutasunen albumean gordeta izan, bizitza zoro eta festazale baten ondorioak bizkar-zorroan eramango zituen betiko. Drogen seme izan zela gogoratzen zion zama handiko penitentzia hark.

Urteak atzera, bizia urre likido bilakatzen zen ordu jakinetan, momentuko abestiaren erritmoaren neurrira dantzan, geroaren ardurarik gabe. Edertasuna inguruan eta edalontzia eskuan.

Begiak platerak bezain handiak eta pilula ahoan, adurra dariola argi koloretsuei begira, segundoak geroago errealitate suntsitzaile bilakatzen ziren mirari kamikazeak.

Orduetara ez zuen ezer gogoratzen, dena desagertu egiten zen. Hegazkinak martxa astiro eta patxadatsuan mugitzen ziren bere garuneko tolesduretan zehar. Baina joaten zirenean, ez zuten bide hura berriro hartzen, eta goizetan berriro bakarrik topatzen zen gaua heltzeko bidaia amaiezinaren aurrean. Gorroto zuen nerabezaro izeneko afrodisiako krudel hura, baina negarrei aurre egiteko beti aurkitzen zuen tokia jende artean.

Urte asko galdu zituen festa batetik bestera, eta oso oroitzapen mingarriak zeramatzan patrikan argazkien ordez.

Ez zen Julek aita negarrez entzuten zuen lehen aldia. Ez zen izeba triste ikusten zuen lehen aldia, ezta amak erruki bila begiratzen zion lehen aldia ere. Joko errepikakorra hautatu zuela zirudien.

Bazekien amaren txanda heltzean zer gertatuko zen: bizitza osoa itzalean, ez zen ederra, ez zen argia, ez zen ezer ahizparen ondoan zegoenean. Baina idazten zituen ipuinetan beti zen protagonista ausart eta trebea. Inoiz biziko ez zituen istorio faltsu haiek bere giltzapetutako altxor ezkutuak ziren. Irudimenean atxilotuta bizi zen, benetako zoriontasuna ezagutu gabe, bertan pertsonaia sekundario eta arrunta baino ez baitzen.

Beti berdina. Momentu batez ahizpari begiratu zion. Ez zuen haren tristuraren arrazoia ezagutzen, ezta bere malkoen jatorria ere. Ez zuen ahizpa ezagutzen. Izar lurrean etzanda zegoen, lo. Tea Morfeorekin hartzen.

Bat-batean Julek gorputza behetik gora igurtzi zion brisa hotza sumatu zuen. Leihotik zetorren haize epela futsada fresko eta zorrotza bilakatu zen, eta gelako argia gutxika desagertzen hasia zela konturatu zenean familiako kideei begiratu zien.

Ama, izeba eta aita. Hirurak korru erdi bat osatzen zeuden eserita. Aurpegi biluz eta begi umelekin haurrari begira.

Lehen aldiz lepo inguruan zirrara bihotz-gogor eta amarrutsua ezagutu zuen. Beldurra. Bakardadearen isiltasunak belarri ondoan oihukatzen zion bitartean bere ahots finean bilatu zuen bihotz-altxagarria.

“Bakarrik panpinak dira”.

# Bakardadea

Maitane Lekuona
Gasteizko Armentia Ikastola
Vitoria-Gasteiz

Pum! Etxeko atea itxi da. Sei urteko neska bat sartu da egongelan. Bere ile marroi nahasia kalean erortzen hasi diren euri tantekin busti du, eta kafe koloreko begiak zabal-zabalik dauzka; distiraz beteriko harri bitxiak dirudite. Triste samar dabil azken bolada honetan. Motxila zakarkeriaz bota du sofa gainera eta negar batean hasi da. Une honetan bere gurasoak etxean egotea gustatuko litzaioke, baina ez daude. Beti bezala, bakardadea du lagun.

Gaur, klasean zegoela, betidanik maite izan dituen zapata beltzak hondatu zaizkio, denborak higatuta. Klasekideetako bat burla egiten hasi da, bere gurasoek maite ez dutela esanez. Berak ezetz, lanean daudela ihardetsi dio ozenki, duintasunez beterik, baina alferrik. Kide guztiak barre algaretan batu dira. Orduan, irakaslea hurreratu eta isiltasuna eskatu du. Beranduegi. Gure neskato maiteak arrapaladan motxila hartu eta klasea utzi du, etxera heldu den arte gelditu gabe korrika eginez.

Malkoak jertsearekin lehortu ondoren, sutan jarri da. Zoritxarrez, ez da klasekideak bere aurka jartzen diren lehenengo aldia. Nazkatuta dago, baina ez daki zer egin, ez dauka irtenbiderik. Beldurrak odola berotu eta zainak estu-

tzen dizkio, indarrez, minez. Baina nori esan hau gertatzen ari dela? Ikastolak ez du ezer egiten, nahiz eta irakasleak gai horren inguruan dena dakien! Berak ere beldurra ote du?

Pizza ziztrin bat hozkailutik atera du, apal zuri eta hotz hartan hilabete bat baino gehiago daraman hura. Antzekotasun ugari du pizzarekin eta orain konturatu da horretaz. “Nire bizitza osoa bakarrik eman dut, beldurrez eta gezurrez egindako kaiola hotz batean. Ni ere hozkailuan bizi izango banintz bezala sentitzen dut neure burua”. Mikrouhinean sartu du pizza eta gazta nola urreztatzen den begiratzen dabil.

Ohera sartu da, iluntasunak hiria besarkatu duen unean. Belztasun hori da gauetan musu bi eta besarkada handi bat ematen dion bakarra. Bi orduren buruan, etxeko ate zaharraren soinuak esnatu du. Bere gurasoen ahots maitagarriak entzun ditu bere logelaren bakardadetik. Heldu dira lanetik. Eguna amaitzear dago. Kontatuko diet eskolan gertatutakoa? Merezi ote du? Ulertuko ote dute? Galdera burrunbada horrekin geratu da lo.

Amak laneko botak kendu eta egongelaren izkina batean dagoen berogailuan utzi ditu. Zapata beltz hautsiak ere bertan daude. Atsekabez begiratu ditu, nola konponduko ote dituen pentsatuz. Aita, txamarra urdin eta lodia kendu ostean, alabaren gelara sartu da, eta musu bat eman dio kopetan. Afaldu gabe eta sabelak miauka egiten diela oheratu dira biak, egun berri baten zain.

Eguzkiaren lehen izpiek esnatu dute umetxoa. Galtzerdi lodi batzuk jantzi ditu bere oin txikietan eta gurasoen gelara gerturatu da. Eskua heldulekuan jarri du burua zalantzaz bete zaion bitartean. Begiak itxi eta ahalik eta zarata gutxien

aterata, ohera hurbildu da. Amaren ondoan etzan da, astiro-astiro haiek erabiltzen duten tapakiaz estaltzen dela.

–Ama... ama... –esan dio emeki belarrira.

–Egun on, txiki. Zer gertatzen da? Ondo al doa dena?

–Bai... galdera bat egin ahal dizut? –erantzun du neskatoak, begiak malkoz betetzen zaizkion bitartean –Maite nauzue?

Amak indarrez besarkatu du eta haien artean sartu du, izarek negarrak irentsi ditzaten. Hirurak negarrez daude, batak bestea besarkatuz, baina behingoz bada ere, elkarrekin. Trenaren soinuak besarkatu du familia, nasa uzten duen bitartean.

*****

‘Piii. Hurrengo geltokia: Avenida de la Paz’

Poltsikotik belar batzuk atera eta, eskuak dar-dar batean dituela, zigarro bat egin du ile nahasidun mutil gazteak. Piztu eta keak pasaia urdin eta ederra grisez margotu du bere begien aurrean. Praka apurtuen zuloetatik haize hotza sartzen zaio, bere azala zimurtuz, gorrituz eta ileak tentetuz.

Berandu doa unibertsitatera. “Zertarako joango naiz?” esan dio bere buruari. Begiak belztuak ditu. Lo gutxi egitearen ondorio. Atzo ere kalera atera zen, bere gorputza hainbat likidoz, hautsez eta pastillaz kutsatzeko asmoz, diskoteka kutre batean hiltzeko asmoz. Orain patrikan dirurik ez duela dabil kalea zeharkatzen.

Gurasoek aspaldi aldatu zuten etxeko sarraila, yonki gazte honi sarrera betiko debekatuz. Hiri handi baten erdialdean dagoen eraikin zahar bateko azkenengo pisuan geratzen da lotan geroztik. Unibertsitateko matrikula ordainduta duela aprobetxatuz, klasera joaten jarraitzen du, batzuetan…

Txikitan zeinen zoriontsua zen oroitzen du. Bizitza frenatzen duen balazta bat izatea gustatuko litzaioke eta baita atzera egiteko aukera izatea ere, bakarrik baitago. Ez du lagunik bere alboan. Galdu ez dituenak drogek akabatu dituzte.

'Piiiiiiiiiiiiiii' luze bat entzun du bere alboan.

–Begira ezazu nondik zoazen, mukitsu zikin hori! –esan dio haserre bizian dagoen gidariak.

Gure gazteak metxeroa kristalera bota dio eta ihes egin du korrika. Arnasa berreskuratzeko zakarrontzien parean eseri da. Bitartean, neska bat bere ondotik pasatu da eta bi euroko txanpon bat eman dio. Eserita dagoela, zakarrez betetako poltsa bat puskatu eta igeltsua dirudien hauts zuri batez zikindu ditu prakak. Burua nahasten hasi zaio, begiak pixkanaka ixten joan zaizkiola.

Han gertu da gure gaztea, zirtzilkeria artean, zaborrarekin fusionatuz.

*****

Zakarrontzien albotik, agure bat dabil pasieran, bizitzari buruz hausnartzen, bizi izan dituen abenturak gogora ekartzen. Emaztea orain dela bi urte lurperatu zuen, bere bizitza osoarekin batera.

Bakarrik dago azkenaldian. Bere seme-alabak nagusiak dira jada, baina ez zaizkio inoiz ere bisitan joaten. Badaki ondo, begiak betirako zarratzen dituen momentuan, segituan agertuko direla, etxea saltzeko eta geratzen zaizkion bizitza-apurrak lapurtzeko. Bere esku zaharrak nahigabez begiratzen ditu; hainbeste urtez langile batenak izan diren eskuak. Badaki ez duela beti guztia ondo egin, baina bere senideengatik beti borrokatu da.

Anbulantzia hotsa entzun du kalean zehar eta zuriz jantzitako bi pertsonak zaborretatik mutiko gazte bat altxatzen ikusi du. Bi euroko txanpon bat lurrera erori eta kristal hautsien doinua izango balitz bezala musikaz josi da egun gris hura.

–Gogoratu ezin duzula azukrerik jan, haragi gorria guztiz baztertu behar duzula eta fruta ugari jan goizetan –esan dio seriotasunez medikuak.

–Bai, badakit, baina janariaz gozatzea da geratzen zaidan bakarra. Hona heltzean besterik ez dago, eta zerbaitek hil egin beharko nau. Ez da hala? Zaharrok oztopo besterik ez gara gizarte huts honetan, ez dugu ezertarako ere balio… –bota dio aurpegira karrera amaitu berri duen medikuari.

–Ez da hori, gizon… Gauza da osasun arazoak ekiditeko nork bere burua zaindu behar duela –erantzun dio gazteak.

Pastilla kutxa pare bat hartu eta berriro etxera itzuli da agure gizajoa.

'Piiiii. Hurrengo geltokia: Calle Esperanza'. Trenaren hotsak inbaditu ditu kaleak, etxeak, bihotzak… Beste egun bat amaitzear dago.

# Altxorrik preziatuena

Iratxe Garmendia Eguskiza
Jakintza Ikastola
Ordizia

# Altxorrik preziatuena

Euriak gogoz jotzen zituen autoko kristalak. Barra-barra erortzen zen eta sekulako burrunbada eragiten zuen sabaia kolpatzean. Ezin zen ia ezer bereizi kanpora begiratzean, farola gutxi batzuen argi ahula eta kale bakarti bat, besterik ez. Handik metro batzuetara gelditu zen autoa. "Azkenean iritsi gara" esan zuen amak, eta euritakoa eskuan harturik, kanpora irten zen. Anaiak eta biok elkarri begiratu eta hasperen batez amari jarraitu genion. Hankak kanpoan jartzerako, goitik behera blai eginda gelditu nintzen. Nire motxila esku batean eta Bob-en bidaietarako kaiola bestean, korrika portal baten azpian sartu nintzen babespean. Anaia ere atzetik etorri zen eta handik pixka batera ama elkartu zitzaigun, maleta guztiak eskuetan eta euritakoa ez erortzeko ekilibrioak eginez. "Zer, gustuko duzue?" galdetu zigun buruaz kalearen beste aldea seinalatuz. Nik ere harantz begiratu nuen eta momentu hartantxe tximista batek nire begien aurrean burdinez eginiko ate sendo baten atzean dotore altxatzen zen eraikin zahar bat argiztatu zuen. Beldurrezko filmetako etxe madarikatua zirudien. Hiru pisu zituen eta justu ondoan, lorategian, ia teilaturaino iristen zen pinu zurrun bat zuen adar baxuenetik sokaz eginiko kolunpio bat zintzilik zuena. Zer esan ez nekiela gelditu nintzen, ahoa bete

hortz, eta inpresioa zela eta, ia ez nintzen ohartu bakarrik gelditu nintzela. Pauso handietan errepidea zeharkatu eta burdinazko atearen parean elkartu nintzen anaia eta amarekin. Amak hura ireki eta barrura egin genuen. Lorategia zeharkatu eta sarrera nagusira eramaten zuten marmolezko lau eskailerak igo genituen. Etxe barnean kanpoan bezainbesteko hotza egiten zuen. Lehenengo begirada nahikoa izan zitzaidan etxe hartan aspaldian inor ez zela bizi izan ondorioztatzeko, dena hautsez beteta zegoen eta. Sabaia oso altu zegoen eta hormak koloretako paperez estaliak. Lurra egurrezkoa zen eta pauso bakoitzak sekulako zarata ateratzen zuen. Amak bigarren pisuan lo egingo genuela jakinarazi zigun, bertan baitzeuden logelak; sukaldea, komunak eta egongela berriz, beheko pisuan omen zeuden. Ez genion erantzun, eta txintik ere esan gabe, aurreratu egin nintzen, etxe berria goitik behera arakatzeko asmotan. Banan-banan gela guztietara sartu nintzen eta armairu zaharkitu guztiak ireki nituen. Edozein momentutan iluntasunetik esku bat irten eta berarekin eramango ninduela zirudien, etxe hark benetan izutzen ninduen! Azkenean, nire gela pasilloaren amaieran zegoena izango zela erabaki nuen, besteekin alderatuta ez zegoen hain gaizki: horma-irudi pare batekin hornituta eta hautsa kenduz gero ondo geldituko zen. Beraz, maleta desegiteari ekin nion. Amaitzean pijama jantzi eta zuzenean oheratu nintzen, nekatuta nengoen eta; emozio gehiegi izan ziren egun bakar baterako.

Hurrengo goizean, goiz esnatu nintzen. Altxatu eta leihotik begiratzean jada eguzkiaren lehen izpiek lorategia argiztatzen zutela ikusi nuen. Lurra putzuz beteta bazegoen ere, ez zen euririk. Hotzez dardarka nengoen eta arroparen gainean jertse lodi bat eta txamarra jantzi nituen. Gosaltzera jaitsi nintzen; aurreko gauean ez nuen afaldu, eta tripan sekulako zuloa nabaritzen nuen. Egun argitan, etxeak atsegi-

nagoa zirudien eta altzairu zaharrek bere xarma zutela ohartu nintzen. Sukaldean ama zegoen, tostada bat kafean bustitzen, eta ni ikusi bezain laster, beste bat prestatu zidan. Begi-zuloak zituen, ez zuen ondo lo egin, antza. Pentsatzen jarrita, amarentzat ere gogorra izan behar zuen egoera berriak, nahiz eta guk askotan horrela pentsatu eta berari bota gure arazoen erru guztia, ez zuen kapritxoz egiten, azken finean berak urruti zituen orain familia eta lagunak.

Gosaldu ostean, Bob-ekin paseo bat ematera atera nintzen, hurrengo urte luzeetan nire herria izango zena ezagutzera. Txikia zen, baina polita. Eraikin zaharrez beterik zegoen eta ibai txiki batek bitan banatzen zuen. Hura gurutzatzeko, harrizko zubitxo bat zegoen. Beste aldera pasatzean, parke handi batean sartu nintzen, haritzez beteriko parke batean. Negua zenez, zuhaitzek ez zuten hostorik, guztiz biluztuak zeuden. Zenbait aulki zeudela konturatu nintzen eta haietako batean eseri nintzen deskantsatzeko, txamarraren mangaz lehortu ostean. Kalean ez zegoen jende gehiegirik, eta ez nuen ikusi nire adineko inor, horrek ez ninduen gehiegi harritu ez baitzuen egiten kanpoan egoteko girorik. Nire pentsamenduetan murgildurik nengoelarik, kanpai hotsa entzun nuen, eta etxera itzultzeko ordua zela erabaki nuen. Iritsitakoan, anaia eta ama sukaldeko mahaiaren inguruan bilduta zeuden nire zain. Gelan sartu orduko, amaren kalabazazko pastelaren usain gozoa heldu zitzaidan, eta azkar nire lekuan eseri nintzen. Aldarte onean nengoen eta aspaldiko partez, kontu-kontari egon ginen. Nire anaiaren txiste txarrek ere grazia eman zidaten. Amaitzean, mahaia jasotzen lagundu eta nire gelara igo nintzen. Entzungailuak jantzi eta musika topean jarri nuen mugikorrean, ohean etzan eta liburua ireki nuen irakurtzeko asmotan. Gutxira, betazalak erori zitzaizkidan eta lo gelditu nintzen.

Esnatu nintzenerako, pare bat ordu pasatu zirela esango nuke. Beheko solairura jaitsi nintzen eta Bob aurkitu nuen bertan, nire zain. Isatsa gogotsu mugitzen zuen alde batetik bestera, jolasteko gogoa zuela zirudien. Muturra laztandu nion eta konturatu orduko bere pilota arrosa utzi zidan oin artean. Hartu eta lorategira irten nintzen, txakurra atzetik nuela. Sarrerako pinu erraldoietatik zintzilik zegoen kolunpioan eseri eta pilota jaurti nion. Ez nuen ia begiak kliskatzeko denborarik ere izan, berriro ere pilota oin artean neukala ohartzean. Beraz, hartu eta nire indar guztiaz jaurti nuen, ahalik eta urrutien irits zedin. Pasatu egin nintzen, ordea; izan ere, zuzen, etxeko azken solairuko leiho batera bota nuen. Kristalak apurtzean egindako soinua entzun bezain laster, bitan pentsatu gabe, ziztu bizian altxatu eta etxean sartu nintzen, zer nolako txikizioa sortu nuen ikustera. Ederra egin nuen! Egun bakar bat ere ez zen pasatu etxe berrira aldatu ginenetik eta jada leiho bat puskatu nuen! Arrapaladan igo nituen eskailerak eta ia arnasestuka iritsi nintzen. Ganbaran, bi gela zeuden; bata, eskuineko atekoa, apurtutako altzari zaharrez betea zegoen; ezkerraldekoa oso txikia zen, mahai bat besterik ez zuen. Azken honek, lorategiko zuhaitzaren aldera ematen zuen, beraz, horra erorita behar zuen pilotak. Atea erdi irekita zegoen eta barrukoa kristalez betea aurkitzearen beldurrez, poliki sartu nintzen. Sorpresa hartu nuen ordea, gelak leihorik ez zuela ikustean. Mahaiaren gainean lanpara bat zegoen eta gela hobeto ikusteko, piztu egin nahi izan nuen. Baina bonbillak ia ez zeukan indarrik eta argi ahul bat besterik ez zuen sortu. Mahaira gehiago hurbildu eta zerbait idatzia zegoela iruditu zitzaidan. Eskua gainetik pasatu nuen, altzairua estaltzen zuen hautsa kentzeko. Dena den, ezin izan nuen ondo irakurri idatzitakoa, hitzak erdi borratuta baitzeuden. Ahaleginaren ahaleginez, “horma” eta “pasadizo” hitzak irakurtzea lortu nuen.

Bat-batean kolpe ozen batek asaldatu ninduen. Buelta eman, eta atea nire atzean itxi zela jabetu nintzen. Korrika joan eta zabaltzen saiatu nintzen, baina alferrik, kanpotik bakarrik ireki zitekeen. Oihu egin nuen, baina ez zen inor etorri, lehenengo solairuan egongo ziren eta etxe hartako pareta zurrunetatik barrena ez ziren soinuak pasatzen. Hamaika saioren ostean, amore eman eta mahaiaren gainean eseri nintzen, zain, noizbait ohartuko ziren nire faltaz. Orduan, irakurritako bi hitzak etorri zitzaizkidan gogora: "horma" eta "pasadizoa". Arretaz begiratu nuen parean nuen horma zerbait aurkitzeko esperantzaz; eskuaz kantoi guztiak haztatu nituen, zirrikitu baten bila; belarria jarri nuen beste aldeko hotsen bat antzemateko; dena probatu nuen, baina alferrik. Pasadizo sekretu batean pentsatzea lelokeria bat izan zela pentsatzen hasia nengoen, ustekabean, horma estaltzen zuen papera erortzen hasia zen leku batean, metalezko ate bat zirudiena begiztatu nuenean. Bihotz taupadak azkartzen zitzaizkidala nabaritu nuen; zirrarak hartuta nengoen. Paper guztia puskatzeari ekin nion orduan, eta espero bezala, ate bat aurkitu nuen atzean ezkutaturik. Pentsatu baino errazagoa egin zitzaidan irekitzea; izan ere, aspaldi ireki gabea behar zuen, eta herdoildua eta erdi ataskatua egotea espero nuen. Nire usteak, ordea, ez ziren bete, eta bultzadatxo bat nahikoa izan zen sartzen uzteko. Beste aldean, gela txiki bat zegoen. Iskina batean, koltxoi zikin bat, guztiz urratua. Haren ondoan, lurrean, pixontzi berde bat, eta lurretik han eta hemen platerak botata, usteldutako janari arrastoekin. Azkenik, armairu txiki baten alboan, nik apurtutako leihoa zegoen, eta haren azpiko lurra kristal zatiz betea zegoen. Haraino eraman ninduen pilota arrosaren arrastorik berriz, ez zegoen. Une hartan ordea, ez nion garrantzia handirik eman detaile horri, gela horrek ezkutatzen zuen sekretua argitu nahi nuen, eta pista baten bila edo, gela

arakatzen hasi nintzen. Bistakoa zen, duela urte asko gela hura norbaiten bizileku izan zela, baina nola bizi daiteke inor horrelako leku txiki batean hain etxe handiaren jabe izanda? Eta jabeek ezer jakin gabe bertan bizi bazen ezkutuan? Edo etxearen jabeek ezkutalekua eskaini bazioten norbaitengandik ihesi zebilen pertsona bati? Misterio hari erantzuna eman nahian nire irudimena martxan jarri eta horrelako burutazioak bata bestearen atzetik otutzen hasi zitzaizkidan. Bat-batean, leiho ondoko armairua miatzen ari nintzela, kaxoietako bat lurrera erori zen, itzelezko sustoa emanez. Makurtu, eta eskuetan hartu nuen. Hutsik zegoen. Hala ere, zerbait arraroa zuen, hutsik egonagatik besteek baino pisu gehiago baitzuen. Hondo bikoitza izan zezakeelakoan, lurrean aurkitu nuen sardexka bat hartu eta kaxa barneko ohola ateratzen saiatu nintzen; eta baita lortu ere! Barnean urrezko kaxa dotore bat zegoen. Bularrean, bihotza are azkarrago taupaka sentitzen nuelarik, esku dardaratsuekin kaxa hartu eta pare bat bira eman nizkion begien parean ondo aztertzeko. Ezin nuen sinetsi ikusten ari nintzena, miresgarria zen benetan! Eragozpen bat zegoen, ordea: irekitzeko giltza baten beharrean nengoen eta kaxoi hartan behintzat ez zegoen. Aurkitzeko asmotan, kaxoi guztiak hustu nituen, hondo bikoitza ez zutela ziurtatu eta lurreko gauza guztiak iskina batean bildu nituen; koltxoia altxatu, baina ezer ez, ez zegoen giltzaren arrastorik. Azkenean, gela hartan ez zegoela inolako giltzarik aitortu behar izan nion neure buruari, eta kaxa hartuta itzultzea erabaki nuen. Gela bitxi hartatik irtetean, metalezko atea nire atzean ondo ixteaz arduratu nintzen, egindako aurkikuntzaren berri inork ez zuela jakingo erabaki bainuen, eta ahal izan nuen hoberen disimulatu nuen hormako paperaz estaliz. Berriro ere hasierako gelan nengoen, mahai bat besterik ez zuen gelan. Nire sorpresarako, atea irekita zegoen eta handik irten ahal izan

nintzen. Nork ireki ote zuen, ordea? Pasilloaren alde batera eta bestera mugitu nuen burua atea ireki berri zuen pertsonaren bila, baina ez zegoen inor. Nire gelara jaitsi eta armairuan ezkutatu nuen kaxa, arropen artean.

Beste ezer egiteko astirik izan gabe, amaren ahotsa entzun nuen lehenengo solairutik:

–Afaltzera!

Eskumuturrean nuen erlojua begiratu nuen, egia zen, jada bederatziak ziren, auskalo zenbat denbora pasatu ote nuen ganbaran. Afaritan isilik egon nintzen, nire pentsamendua gela txiki hartan gelditu zen. Amak begirada hotzarekin aztertzen ninduela antzeman nuen, memento hartan burutik pasatzen zitzaidana irakurri ahalko balu bezala. Nire isiltasunari buruzko galdera deserosoak egiten hasteko astirik eman gabe, aurreratu egin nintzaion:

–Ama, pentsatzen egon naiz, eta badirudi gu etorri aurretik etxe hau urte askoan hutsik egon dela. Ba al dakizu zerbait aurreko jabeei buruz?

–Beno, nik ez nuen haiekin kontakturik izan inmobiliaria baten bitartez alokatu nuen eta etxea. Baina etxe hau hartu behar genuela jakitean, herrian zurrumurru asko piztu ziren eta familiako neskamea oraindik bizi dela entzun nuela uste dut.

–Zer zioten bada zurrumurru horiek? –galdetu nuen amaren hitzek nigan piztu zuten zirrara ezkutatu nahian.

–Ezer ez, kontu zaharrak, aurreko mendean galdutako perlazko lepoko baliotsu bati buruzko fantasiak besterik ez.

Jada ezin izan nuen nire emozioa kontrolatu eta ahotsa ia dardarka eta begiak zabal-zabal nituela esan nion:

–Zer gehiago dakizu lepoko horri buruz, ama?

Amak, gai hark nigan piztu zuen interesa igarrita, isekari erantzun zidan:

–Ez duzu benetan pentsatuko halakorik badenik, ezta? Horiek herritarrek denbora pasatzeko asmatutako kontuak dira!

–Ez, noski. –ihardetsi nion ahalik eta tonu sinesgarrienean.

Amarekin izandako elkarrizketaren ondoren, oraindik ere gogotsuago agertzen nintzen gai hartaz pentsatzean eta hurrengo egunetan, afarian aipatutako neskameari buruzko informazioa jasotzen jardun nuen. Liburutegian, herriko historiaz hitz egiten zuten liburuak kontsultatu nituen, bizilagunei galdetu nien, eta udaletxera joatea ere pentsatua nuen, eta azkenean pista bat lortu nuen. Inmobiliariara deitzea bururatu zitzaidan, eta bingo! Asmatu nuen bai, han ondoko erresidentziara joateko eta Maria Jesusengatik galdetzeko esan baitzidaten.

Horrela bada, berria jaso eta hurrengo goizean bertan, Bob paseatzera atera behar nuela aitzakiatzat jarri eta martxan jarri nintzen. Kaxa txamarraren azpian ezkutatua nuen eta bidean lore batzuk jaso nituen Mariari oparitzeko; bere sekretua kontatzea nahi banuen, garrantzitsua zen gure harremana ondo hastea. Pauso azkarrak emanez nindoan aurrera, inoiz aurretik sentitu ez nuen egonezin batek mugitzen ninduen. Urduri nengoen eta behin eta berriro errepasatzen

nuen ezpainak mugituz, marmarka, bezperan prestatutako gidoia, amonari azalduko niona alegia.

Handik hamar bat minutura iritsi nintzen erresidentziara; espero baino lehenago. Eraikina lorategi batez inguratua zegoen, eta erdian iturri handi bat, ahotik etengabe ura botatzen ari zen izurde baten eskultura bat zuena. Leku atsegina zen paseo bat emateko edo, besterik gabe, banku batean esertzeko, denbora pasatzen utziz. Baina egun hartan hotz handia egiten zuen eta ez nuen ikusi inor inguruan. Beraz, lorategian zehar, eraikinera bideratu nintzen. Sartzean, bero handia egiten zuela nabaritu nuen, baina ezin nuen txamarra kendu, kaxa agerian utzi nahi ez banuen behintzat. Horrela bada, aurrera egin nuen, eta sarreraren ezkerretara zegoen gelan sartu nintzen. Egongela handi bat zen, eta erdian, mahai handi baten inguruan, aiton eta amonen talde handi bat zegoen kartetan jolasten. Oso kontzentratuta zeudela zirudien, beraz ez nuen euren partida eten nahi izan. Beste begirada bat eman nion gelari, eta iskina batean, besaulki batean eserita, amona bat zegoela ikusi nuen. Txiki xamarra zen eta urteen eragina oso nabaria zen harengan. Aurpegia zimurrez betea zuen eta guztiz konkortua zegoen. Begirada leihoan barrena galdua zuen eta bazirudien ikusten zuenak tristura sortzen ziola. Hurbildu egin nintzaion, baina nire presentziaz ohartzea kostatu egin zitzaion. Azkenean, buelta eman eta bere begi urdin eta txikiak nigan iltzatu zituen, inoiz neska gazterik ikusi izan ez balu bezala.

–Kaixo, barkatu… –mintzatu nintzaion, xamur –ez duzu jakingo non dagoen Maria, ezta? Maria Jesus?

–Maria Jesus… –esan zuen ia ahapeka, eta gorantz begiratu zuen, pentsakor –Ezaguna egiten zait, baina momentu

honetan ez naiz oroitzen, sentitzen dut. –Erantzun zuen azkenean, eta berriro ere leihorantz itzuli zen.

Bakean uztea erabaki nuen, eta egongelatik ateratzeko intentzioz, ate aldera zuzendu nintzen. Hura zabaltzear nengoenean ordea, erizain bat sartu zen.

–Barkatu –esan nion sorbaldan pare bat kolpe ematen nion bitartean, nigan erreparatu zezan. –Ba al dakizu ea Maria Jesus erresidentzia honetan dagoen?

–Bai, noski! Horko hori duzu –esan zidan, hatzaz une bat lehenago galdera bera egin nion emakume zaharra seinalatuz.

–Nola? Ziur al zaude? Oraintxe bertan hitz egin dut berarekin eta Maria Jesusik ez duela ezagutzen esan dit.

–Beno… –hori esan eta geldiune bat egin zuen hitz egokiak hautatzen ariko balitz bezala, eta jarraitu baino lehen, zera galdetu zidan –Zertaz ezagutzen duzu, familiakoak zarete?

Galdera hark ustekabez harrapatu ninduen, eta zer erantzun jakin gabe gelditu nintzen. Egia azaltzea erabaki nuen, ez nuen denborarik istorio bat asmatzeko.

–Mmm… Zera, –hasi nintzen zalantzati –duela gutxi etorri gara hona bizitzera, ondoko herriko etxe dotore bat hartu dugu alokairuan. Oso etxe zaharra da, eta ezkuta ditzakeen misterioek nire jakin-mina piztu zuten lehenengo unetik. Horregatik nago hemen, duela gutxi jakin dudalako Mariak urte askoan etxe hartako neskame moduan egin duela lan.

–Ulertzen dut bai, zeu ere perlazko lepokoaren bila zabiltza. –Irribarre isekari bat marraztu zitzaion aurpegian eta ni gorritu egin nintzela nabaritu nuen. –Segi, Mariari asko gustatzen zaio istorio zaharrak gogoraraztea, poztu egingo da entzule gazte bat duela jakitean, azkenaldi honetan goibel xamar dago eta. Eta aurrekoagatik ez kezkatu, behin baino gehiagotan gertatzen zaio, gauzak ahaztu egiten zaizkio.

Beraz, bigarren aldiz hurbildu nintzen amonarengana, eta oraingoan aulki bat eraman nuen nirekin, haren ondoan esertzeko. Erizainak aurkakoa esan bazuen ere, ez nuen uste bere izen propioaz ahaztu ondoren duela urte asko gertatutakoaz oroitzeko gai izango zenik, beraz zuzenean kaxa belaunen gainean ezarri nion. Amonak orduan, txintik ere esan gabe burua makurtu zuen, eta argi ikusi nuen kaxa ezagutu zuela, niri begira gelditu baitzen. Bat-batean hamar urte gazteagoa ematen zuen, irribarre zabal batek argitzen zuen bere aurpegia, eta begiek, hunkiturik, dir-dir egiten zuten. Nik irribarrea itzuli nion, duela gutxi betilun eta triste zegoen aurpegia orain bizitzaz beterik ikusteak ni ere emozionatu ninduen. Orduan, jantzita zuen blusaren barnean eskua sartu eta zerbait atera zuen. Lepoko batetik zintzilik, urrezko giltza bat zuen! Hartu, eta esku dardaratiekin, kaxaren sarrailara hurbildu zuen. Sartu eta, poliki, pare bat buelta eman… eta kaxa irekia gelditu zen. Niri pasatu zidan orduan, eta keinu batez zabaltzera gonbidatu ninduen. Hala egin nuen, eta eskua sartzean, bertan ez zegoela inolako lepokorik konturatu nintzen. Argazki zahar batzuk besterik ez! Desengainatuta, amonari eskaini nizkion, eta berak ilusio handiz hartu zituen. Dena pikutara bidaltzeko gogoa sentitu nuen. Hainbeste denbora izugarrizko misterioa argitzear nengoela pentsatuz, jendea denbora luzean bilatzen egondako bitxia aurkitzear nengoela amestuz, eta zer eta argazki madarikatu batzuk soilik! Amak arrazoi zuen, ho-

rrelako istorioak ez dira existitzen, jendeak denbora pasatzeko asmatzen ditu. Momentu hartantxe altxatu eta joatekotan egon nintzen, baina zerbaitek ez zidan mugitzen utzi, eta bertan gelditu nintzen, Mariarekin batera argazkiak ikusten. Denak txuri beltzean zeuden eta oso zaharrak ziren. Lehenengoan, neska gazte bat agertzen zen, nire adinekoa edo, ilea bi txirikordetan bilduta eta eskolako uniformea jantzita. Ez nuen zalantzarik izan, hura Maria zen, askoz ere gazteago bazegoen ere, berehala errekonozitu nuen. Bigarren argazkian neska bera zegoen, baina oraingo honetan jende gehiagoz inguratua. Familia bat zirudien: emakume bat eta gizonezko bat eta bost ume, dotore jantziak, irribarretsu kamerari begira. Azkeneko irudian, bikote bat zegoen, maitekiro besarkaturik. Argazki hartan ere Maria ezagutu nuen, leloturik begiratzen zion ondoan zuen mutilari, guztiz maiteminduak ziruditen. Denak ikusten amaitzean, berriro ere kaxan sartu eta hasperen batez itxi zuen. Oraindik ere alaitasuna islatzen zen haren aurpegian, baina malko bat erori zitzaion. Besarkatu egin nuen, ez dakit zergatik, barnetik atera zitzaidan, baina bistakoa da asmatu egin nuela, irribarre bat eskaini baitzidan eta hitz egiten hasi:

–Haaau, ni nauzu –hasi zen lehen argazkia hurbiltzen zidalarik –Txikitan. Eta hauek, nire ama, aita eta anai-arrebak. –Isilik gelditu zen une batez, berriro ere leihotik begira. Zer kontatzen ari zen ahaztu zitzaiola pentsatu nuen, baina oker nengoen. –Pozik bizi ginen, bai… baina gurasoek, hona bidali ninduten: ikastera. Hemen ondoko herri batera, ez naiz oroitzen nola deitzen zen. Hemen, Dennis ezagutu nuen. –izen hau ahoskatu orduko irribarre egin zuen, eta begirada ezerezean galdu zuen, elkarrekin bizitako uneak gogorarazten egongo balitz bezala. –Maitemindu egin ginen… nik asko estimatzen nuen, eta berak ere bai ni. –Bat-batean, espresioa

aldatu zitzaion eta serioago jarri zen. –Espero gabe ordea, gerra iritsi zen Frantziara; GERRA. Ez diot hitz honi inoiz zentzua harrapatu. Zorigaitzak besterik ez ditu ekartzen, pertsona errugabeen heriotza eta sufrimendua besterik ez, eta hori dena zertarako? –Bakarrizketa batean murgildu zen, eta ni ere bertan nengoela ahaztu zitzaiola zirudien. –Nik ere ezkutatu behar izan nuen… garai hartan judutarren atzetik zebiltzan eta. Zortea izan nuen baina, Dennis oso bihotz oneko mutila baitzen eta ezkutalekua eskaini baitzidan. Denbora asko pasatu nuen gela ilun eta hotz batean sartuta, aire freskoa hartzeko aukerarik gabe. Zenbat denbora izan ote zen…, hilabete batzuk…, urte oso bat, edo gehiago agian. Ez dut gogoan; hori bai, momentu haietan sentitzen nuen bakardadea eta beldurra atzo izan balitz bezala gogoratzen dut. –Berriro ere geldialdi bat egin zuen, esatera zihoan hitzek zauri zahar bat irekiko baliote bezala. –Barnean nengoen bitartean, esperantza galdu ez nezan edo, ez zidaten ezer esan. Irten nintzenean jakin nuen. Dennis jada ez zegoen gure artean, alde egin zuen, betirako utzi gintuen. –Ezin izan zuen jarraitu, malko tanta lodiek aurpegia zeharkatzen baitzioten, eta emozioaz ezpainaz dardarka zituen.

Egun hartatik aurrera, astero joaten hasi nintzen Maria bisitatzera, eta aldiro istorio ezberdin bat kontatzen zidan. Arratsalde atseginak izaten ziren, bai. Oso harreman estua genuen eta Maria inoiz baino alaiago agertzen zen. Lorategian paseo luzeak ematen genituen eta behin baino gehiagotan gonbidatu izan nuen etxera, hainbeste oroitzapen gordetzen zituen etxera. Hemezortzi urte bete nituenean ordea, Ingalaterrara joan nintzen medizina ikastera, Mariaren bidea jarraituz. Joan baino lehen ordea, gabonetan itzuliko nintzela zin egin nion. Horrela egin nuen, baina erresidentziara iristean, ez nuen aurkitu Maria… Erizainek eskutitz bat utzi zidala esan zidaten, bere objektu pertsonalez gain. Negarrari

eutsi ezinik, Mariaren gelan sartu nintzen, eta ohearen gainean urrezko kaxa topatu nuen, gainean eskutitz bat zuena. Hura ireki eta mezu hau irakurri nuen:

“Zu izan zara nire azken urteetako altxorrik preziatuena, mila esker, gogoan izango zaitut”.

Eskutitzaz gain, sobrean giltza bat ere bazegoen, duela bi urte urrezko kaxa irekitzeko erabili zuen bera. Hura hartu eta kutxa ireki nuen. Bertan zeuden Mariaren altxorrak: argazki zaharrak, elkarrekin ateratako argazki bat, eta… perlazko lepokoa.

# Beste egun bat

Lierni Gregorio Zabala
Gernika GHI
Gernika-Lumo

“Bost minutu eta hurrengoa”. Hurrengoa, zein hitz arrunta, arrunta baina gupidagabea, gupidagabea eta beldurgarria. “Lierni, bi minutu eta eszenatokira”. Bai, konturatu zarete, hurrengoa ni naiz. Nire aurretik zihoan mutilak, Jonek, amaitu du bere emanaldia, itzel abestu du gitarrarekin batera. Txaloak. “Aurrera, Lierni”. Bat-bateko isiltasuna, nire oihal atzetik eszenatoki erdiraino doazen pausoak baino ez dira entzuten. Pauso hauek zehatzak, irmoak izan behar zuten, baina ez, dudatsuak dira, lotsatiak, beldurra adierazten duten pausoak. Oholtza erdian nago. “Burua altxatu ala ez?” da neure buruari egiten diodan galdera. Bai, altxatu dut baina, mila begi niri begira ikustean, berriz jaitsi dut. Tik-tak, masailetan berotasuna sumatzen dut. Tik-tak, eskuetan izerdia. Tik-tak, hankak dardara bizian. Tik-tak, arnas erritmoak gora egin du publikoaren txutxu-mutxuekin batera. Ihes egin ala ez? Erabakia hartu baino lehen iratzargailuak izartu nau. Beste amesgaizto bat.

Apirilaren hamabiko goizeko zazpiak dira, osteguna da eta, ohi bezala, ikastolara joan behar dut. Ohetik jaiki naiz, laugarren biderrez bizitako amesgaitz hura alde batera utziz. Lau gau daramatzat, bai, lau gau luze eta amaiezin egoera beldurgarri hura amesten. Hala ere, bada arrazoi bat amets horien zergatia azaltzen duena: Alai musika eskolak ema-

naldi bat antolatu du ostiralerako, hau da, biharko. Bertan, hainbat ikaslek antzeztuko dute. Batzuk abestu, beste hainbatek musika tresnak jo… Ikasle horietako bat neu naiz. Pianoa joaz batera, abestu egin behar dut.

Ohartu naizenerako, gosaria ere bukatuta daukat. Ilea atondu, hortzak garbitu, ama agurtu eta autobus geltokirantz abiatu naiz. Ikastetxerako bidean ere, musika entzuten noan arren, ezin dut deskonektatu. Denbora igaro ahala, berreskuraezinak diren minutuak joan ahala, biharko ikuskizunean pentsatzean, barruan dudan beldurra apurka- apurka handitzen doa. Institutuko atera helduaz batera ohartu naiz gaurkoa egun gogorra izango dela.

Halaxe izan da bai, orain arte, gogorrenetan gogorrena. Matematiketako irakasleak ez nau ba ordu osoan arbelean eduki! Ariketa bat amaitu eta hurrengoa hasi, bat amaitu, bat hasi. Gorroto dut arbelera irtetea. Akatsik ezin egin, letra polita egin behar, gelako pailazoa bihur ez zaitezen brageta itxita duzula ziurtatu… Onartu beharra daukat inoiz ez zaidala horrelakorik gertatu eta erratzea naturala dela, inor ez dela perfektua, baina horrek ez du balio nire lotsa eta erratzeari edo barregarri gelditzeari diodan beldurra deuseztatzeko. Hori gutxi balitz, euskarako saioan ozenki irakurtzea egokitu zait. Hona hemen gorroto dudan beste gauza bat. Irakasleak “hurrengoa” esan eta nire txanda iritsi da. Lotsa agertu da, eta honekin batera, izerdia, dardarak eta masailetako kolore gorria. Ahotsa nire gorputzeko zirrikiturik sakon eta ilunenean ezkutatu eta mutu utzi nau. Kostata, egokitu zaizkidan bi lerro madarikatu horiek irakurtzea lortu dut.

Musika eskolako atera heldu naiz, gaur baita emanaldi aurreko azken entsegua. Egurrezko ate erraldoia zeharkatu,

harreragilea agurtu eta eskaileretan gora joan naiz. Zenbat aldiz igo ote ditut eskailera hauek? Hamabost bider lau, ez, hirurehun eta hirurogeita bost zati… Iritsi naiz gelara, arraroa da baina badirudi eguneko kezka guztiek alde egin dutela.

–Kaixo, Lierni!

–Hola –erantzun diot irakasleari, beti bezala.

Aurpegiarekin keinu arraro bat egin du, kezkatuta balego bezala.

–Zer gertatzen da ba? –galdegin dit.

–Ezer ere ez, nekatuta nago, besterik ez – badakit ez duela sinetsi, baina ez daukat azalpenak emateko gogorik.

Dena prest dagoela ikusi eta, ahotsa berotu ondoren, piano aurrean eseri naiz. Besoak luzatu ditut, hankekin batera. Arnasketa sakon bat egin dut. Beldurra? Lotsa? Non zaudete? Arrastorik ere ez. Atzamarrak piano teklen gainean jarri eta magikoak balira bezala, mugitzen hasi dira, partitura jarraituz. Automatikoki, ahotsa bere ezkutalekutik atera eta gela osoa bete du. "Step one you say we need to talk…". Izerdia? Dardara? Non zaudete? Erantzunik ez.

Irakaslearen txaloekin batera amaitu dut entsegua. "Zorionak, Lierni, primeran egin duzu! Gorde indarrak biharko" esan dit. Irribarre batekin erantzun diot.

"Gorde indarrak biharko", berdin dio zenbat indar gordetzen dudan. Berdin dio entseguan "primeran" egin izanak. Berdin dio lotsa, beldurra, izerdia eta dardara desagertzeak, ondo baino hobeto dakit bihar berriro beraien ezkutalekue-

tatik aterako direla eta nik "gordetako" indar, ilusio eta segurtasun guztiak garaituko dituztela.

Afalordua da. Aitak bere patata tortilla egin du, nire gogokoena. Ahizpa txikia ari da hizketan, gaur ingeleseko azterketa egin duela…, aita ere amarekin hizketan. Bitartean, nire tortilla zatiak berdin jarraitzen du, osorik. Ama ohartu da eta ea zerbait gertatzen zaidan galdetu bezain pronto, goserik ez dudala erantzun diot. Mahaitik altxatu eta logelara abiatu naiz. "Adina izango da" zioen aitak.

Mila bider kontatu diot amari jendaurrean agertzeko dudan beldurra. Izu eszenikoa, berak dioen bezala. "Pentsatu bakarrik zaudela" edo "denborarekin joango da, lasai egon" dira bere erantzunak. Sarritan isilik geratzen da, nola erantzun jakingo ez balu bezala. Jada ez dut familiarekin gai honi buruz hitz egiten, zertarako? Beti erantzun berdinak jasotzeko? Lagunekin ere komentatu dut, baina kontuz, ez edozeinekin, lagun minekin bakarrik. Gauza da: axola zaie? Nori axola zaizkio nire kezkak edota arazoak? Ez naiz arazoak dituen pertsona bakarra! Denborarekin ikasi dut buruhauste eta nekeak neure barnean gordetzen, baina, baita, ikasi dut, gutxika-gutxika pilatzen doazela eta noizbait eztanda egingo dutela.

Badirudi oraindik ezetz.

Gogoetak alde batera utzi ditudanerako, burkoa malkoz beteta daukat, baita logela hankaz gora ere, liburuak handik, arropak bestetik… berdin zait. Hortzak garbitu eta berriz ohean sartu naiz.

Entzungailuak jarri eta nire playlist gogokoena martxan jartzearekin batera "bihar beste egun bat izango da, Lierni"

esaldia ozenki esan dut, neure burua engainatzeko asmotan, baina alperrik.

Azken ahots beroketak egin eta gora. Eszenatoki atzean nago partitura eskuetan dudala. Harrigarria da zeinen ongi jotzen duen Nilek biolontxeloa. “Bost minutu eta hurrengoa”. Ondo dakit nik hurrengoa nor den. Ikusleen txalo zaparradarekin batera berriz agertu da ahots ezagun hura “Lierni, eszenatokira”. Badakit jarraian zer datorren. Ibiltzen hasi naiz, lehen pauso ahulak zirenak boteretsu bihurtuz. Burua tente daramat, sinestezina izan da mila begi horiek ikusterakoan nire ahoan marraztuta agertu den irribarre zabala. Piano aurrean nago. Oraindik beldurra eta bere lagunak ez dira agertu. Atzamarrak piano teklen gainean jarri eta…

Iratzargailuak jo du. Ohetik jaiki eta komunera joan naiz. Ispilu aurrean nagoela “gaur beste egun bat izango da, Lierni” esan dut, beste egun bat.

# URRUZUNOTARRAK
# 1986-2017

| ABIZENAK | IZENA | IZENBURUA | URTEA | ARLOA |
|---|---|---|---|---|
| Abaunza Urionabarrenetxea | Sara | Ametsen bila | 2013 | Prosa |
| Aboitiz Correa | Xabier | Ikaro | 2010 | Prosa |
| Aginaga Etxebarria | Leire | Anbotoko dama | 2017 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | Ohore Galdua | 1998 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | Burua tente mutilak! | 1999 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | Maite duen orok... | 2000 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | Gorrotoaren mendekua | 2000 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | La dolce vendetta | 2001 | Prosa |
| Agirre Arriolabengoa | Manex | Aitona | 1997 | Prosa |
| Agirre Elgarresta | Martin | Idazmakina bakarti baten azken narrazioa | 1986 | Prosa |
| Agirre Garmendia | Alaine | Pausoak | 2006 | Poesia |
| Agirre Garmendia | Alaine | Ikararen korridorean gaindi | 2007 | Prosa |
| Agirre Garmendia | Alaine | Agian | 2007 | Prosa |
| Agirre Garmendia | Alaine | Insomnio gauetan idatzitako zirriborroa | 2007 | Poesia |
| Agirre Garmendia | Alaine | Hiru segundo eta erdi | 2007 | Poesia |
| Agirre Garmendia | Alaine | Azkeneko bidaian | 2008 | Prosa |
| Agirre Garmendia | Alaine | Denbora zer den | 2008 | Poesia |
| Agirre Gonzalez | Amaia | Zenbakaitzaren mugagabetasuna | 2006 | Prosa |
| Agirre Gonzalez | Amaia | Gatibu | 2007 | Prosa |
| Agirre Gonzalez | Amaia | Zeruertzaren bila | 2008 | Prosa |
| Agirre Gonzalez | Amaia | Tximeleten jolasa | 2008 | Poesia |
| Agirre Larrea | Antziñe | Irrati baten gora-beherak | 1986 | Prosa |
| Agirre Lazkanoiturburu | Mikel | Zergatik? | 1989 | Poesia |
| Agirre Madariaga | Uxue | Oroitzapenen ziega | 2010 | Prosa |
| Agirre Mosquera | Uxue | Espero ez nuena | 2010 | Poesia |
| Agirre Zapirain | Ugaitz | Malkoz josiriko bandera | 2008 | Poesia |
| Agirre Zapirain | Ugaitz | Erokerian | 2009 | Poesia |
| Aiestaran Iparragirre | Maddi | Bitxilore, zu traidore | 2016 | Poesia |
| Aiestaran Iparragirre | Maddi | Aske | 2017 | Poesia |

| ABIZENAK | IZENA | IZENBURUA | URTEA | ARLOA |
|---|---|---|---|---|
| Aizpiolea Martikorena | Maialen | Azken orbela | 1997 | Prosa |
| Aizpuru Bilbao | Miren | Larunbatak | 2016 | Prosa |
| Aizpuru Segurola | Kristina | Isiltasunaren oihartzuna | 1999 | Prosa |
| Akizu Bidegain | Maialen | Blas | 2011 | Prosa |
| Akizu Bidegain | Maialen | Ipuin batean bezala | 2011 | Poesia |
| Akizu Bidegain | Maialen | Hozkada | 2012 | Poesia |
| Akizu Bidegain | Maialen | Espaloian noraezean | 2012 | Poesia |
| Akizu Bidegain | Maialen | Zulo beltza | 2013 | Poesia |
| Akzu Bidegain | Maialen | Teloia jaisten denean | 2013 | Poesia |
| Alberdi Estibaritz | Antton | Ez dut ezer ulertzen | 2002 | Prosa |
| Aldabaldetreku Etxeberria | Gotzon | Itzultzerik gabeko bidaia | 1993 | Prosa |
| Alduntzin Egizurain | Unai | Morte nel carnavale | 2008 | Prosa |
| Alduntzin Egizurain | Unai | Izango al du udaberririk negu honek? | 2009 | Prosa |
| Alonso Allue | Leire | Azken dantza hau | 2011 | Prosa |
| Alonso Allue | Leire | Autopsia | 2012 | Poesia |
| Alonso Allue | Leire | Alzheimerraren doinua | 2012 | Prosa |
| Alonso Allue | Leire | Jainkoaren izenean | 2011 | Poesia |
| Altuna Angiozar | Nekane | Niregandik urrun | 1987 | Poesia |
| Altuna Angiozar | Nekane | Baldin argia ikustera iristen banaiz | 1988 | Poesia |
| Altuna Jauregi | Karmele | Praisku mutil zaharra | 1986 | Poesia |
| Altuna Jauregi | Nuria | Bizitza horrela delako | 1987 | Prosa |
| Alvarez Gerriko | Ion | Betidanik, betirako | 1990 | Poesia |
| Alzate Azpiroz | Jon | Zozketagai xelebrea | 1992 | Prosa |
| Alzugarai Sacristán | Aitziber | Zergatik? | 1988 | Poesia |
| Amondarain Ipiña | Gaizka | Margotu ninduten | 1999 | Poesia |
| Amondarain Ipiña | Gaizka | Urtaroen klandestinitatean, zu | 2000 | Poesia |
| Amondarain Ipiña | Nagore | Gogoratzen haiz | 1995 | Poesia |
| Amondarain Ipiña | Nagore | Malekoitik so | 1997 | Poesia |
| Amorrortu Barrenetxea | Peru | Beragatik | 2015 | Prosa |
| Amorrortu Barrenetxea | Peru | Post mortem | 2016 | Prosa |

| ABIZENAK | IZENA | IZENBURUA | URTEA | ARLOA |
|---|---|---|---|---|
| Amorrortu Barrenetxea | Peru | Lubiankan | 2017 | Prosa |
| Amozarrain Mendizabal | Idurre | Pentsamenduak | 1995 | Poesia |
| Ansa Arbelaitz | Garazi | Iratzargailuaren orratz herdoilduek martxan dihardute | 2005 | Prosa |
| Ansa Arbelaitz | Garazi | Oraina iraganean ahazturik | 2005 | Poesia |
| Anzizar Lizarraga | Nerea | Blues bat gauaren iluntasunean | 1997 | Prosa |
| Apaolaza Cardona | Mattin | Azken geltokia | 2016 | Poesia |
| Apaolaza Goena | Amaia | Amaigabeko itukin latzak | 1992 | Prosa |
| Apaolaza Goena | Amaia | Zaharra berri... orain eta beti | 1993 | Prosa |
| Apaolaza Larrea | Uxue | Azken bost minutuak | 1996 | Prosa |
